# LG KM900-en

erabiltzailearen eskuliburua




Eskuliburu honen zatiren bat agian ez da bat etorriko telefonoarekin; hori telefonoaren softwarearen edo zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da.

Euskaltelek itzulitako eta ekoiztutako eskuliburua

euskaltel

Zorionak LGren KM900 telefono mugikorra erosteagatik. Modelo honek diseinu berritzailea eta konpaktua du, eta bateragarria da komunikazio mugikor digitaleko teknologiarik aurreratuenarekin.

**Nola bota gailu elektriko eta elektroniko zaharrak**

1. Produktu batean gurpildun edukiontzi baten irudi ezabatua azaltzen bada, produktua 2002/96/EE Europako zuzentarauan jasota dagoela adierazten du.
2. Gailu elektriko edo elektronikoak ez dira bota behar udalak eskaintzen dituen zabor-zerbitzu arrunten bidez, eta gobernuak edo tokiko erakundeek produktu horietarako prestatutako guneetara eraman behar dira.
3. Gailu erabilezinak behar bezala jaso eta tratatzen badira, ingurumenari eta osasun publikoari sor diezazkieketen arriskuak saihets daitezke.
4. Gailu zaharrak botatzeko moduari buruzko informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan udalarekin, zaborrak biltzeko zerbitzuarekin edo produktua erositako saltokiarekin.


Konfigurazioa 01
Hasierako pantaila 02
Oinarrizko ezaugarriak 03
Sormenezko ezaugarriak 04
Antolakuntza-ezaugarriak 05
Sarea 06
Doikuntzak 07
Osagarriak 08

# Aurkibidea

## Konfigurazioa


Telefonoa ezagutzea....8
Telefono irekiaren ikuspegia....10
SIM txartela eta bateria sartzea....11
Kargatu telefonoa....13
Memoria-txartela....14
Menuen mapa....16


## Hasierako pantaila


Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak....17
Laster-teklak....19
Ukipen-pantaila....20
Multitarea funtzioaren erabilera....24


## Oinarrizko ezaugarriak


Deiak....25
- Dei bat edo bideo-dei bat egitea....25
- Kontaktu bati deitzea....25
- Dei bati erantzutea edo ez onartzea....25
- Sarrerako deien aukerak....26
- Dei baten bolumena doitzea....27
- Markatze lasterra....27
- Bigarren deia egitea....27
- DTMF desaktibatzea....28
- Deien erregistroak ikustea....28
- Deien desbideratzea erabiltzea....29
- Deien murrizketa erabiltzea....30
- Deien ohiko doikuntzak aldatzea....30
- Bideo-deiaren doikuntzak aldatzea....31

Kontaktuak....32
- Kontaktuak bilatzea....32
- Kontaktu berri bat gehitzea....32
- Talde bat sortzea....33
- Kontaktuen doikuntzak aldatzea....34
- Informazioa ikustea....35

Mezuak....36
- Mezuak....36
- Mezuak bidaltzea....36
- Testua idaztea....37
- T9 prediktiboa....37
- Eskuzko Abc....37
- Posta elektronikoa konfiguratzea....38
- Mezu elektroniko bat bidaltzea kontu berri baten bidez....40
- Posta elektronikoaren doikuntzak aldatzea....40
- Mezuen karpetak....41
- Txantiloiak erabiltzea....42
- Aurpegierak erabiltzea....42
- Testu-mezuen doikuntzak aldatzea....42
- Multimedia-mezuen doikuntzak aldatzea....43
- Beste doikuntza batzuk aldatzea....44


## Sormenezko ezaugarriak


Kamera....45
- Argazkiak azkar ateratzea....45
- Argazkia ateratakoan....46
- Bisorea ezagutzea....47
- Flasha erabiltzea....48
- Kontrastea doitzea....49
- Konfigurazio aurreratua erabiltzea....49
- Irudiaren neurria aldatzea....51
- Kolore-efektu bat hautatzea....52
- Barneko kamera erabiltzea....52
- Gordetako argazkiak ikustea....53

Bideokamera....54
- Bideo bat azkar egitea....54
- Bideo bat grabatu ondoren....55
- Bisorea ezagutzea....56i
- Kontrastea doitzea....57
- Konfigurazio aurreratua erabiltzea....57
- Bideo-irudiaren neurria aldatzea....59
- Kolore-tonu bat hautatzea....60
- Barneko bideokamera erabiltzea....60
- Gordetako bideoak ikustea....61
- Bideoak telebistan ikustea....61

Zure argazkiak eta bideoak....62
- Argazkiak eta bideoak ikustea....62
- Zooma erabiltzea argazki bat ikustean....62
- Bolumena doitzea bideo bat ikustean 62
- Argazki bat ezartzea pantailaren atzeko plano gisa....63
- Argazkiak editatzea....63
- Argazki bati testua gehitzea....65
- Argazki bati efektua gehitzea....65
- Argazki bat moztea....65
- Argazki bati kolore-puntu bat gehitzea....66
- Argazki baten koloreak txandakatzea 66
- Bideoak editatzea....67
- Bideoaren iraupena laburtzea....67
- Bi bideo bateratzea....67
- Argazki bat eta bideo bat bateratzea....68
- Bideo bati testua gehitzea....68
- Argazki bat gainjartzea....69
- Bideoari soinu-banda gehitzea....70
- Bideoari zuzeneko soinua gehitzea....10
- Bideoaren abiadura aldatzea....71
- Argitasuna murrizteko efektu bat gehitzea....71

Multimedia....72
- Irudiak deskargatzea....72

# Aurkibidea


Mis imágenes-eko aukeren menua........72
Argazki bat bidaltzea........71
Irudi bat erabiltzea........71
Irudi bat inprimatzea........74
Irudi bat mugitzea edo kopiatzea........74
Diapositiba-aurkezpen bat sortzea........74
Etiketa geografikoak jartzea........74
Memoriaren egoera egiaztatzea........75
Soinuak........75
Soinu bat erabiltzea........75
Bideoak........76
Bideoklip bat bidaltzea........76
Jokoak eta aplikazioak........76
Joko batean aritzea........76
Aukeren menua erabiltzea........77
Jokoak eta Java aplikazioa instalatzea........77
M-Toy menua erabiltzea........77
Flash edukiak........77
SWF/SVG fitxategi bat ikustea........77
Dokumentuak........77
Fitxategi bat ikustea........78
Telefonora fitxategi bat transferitzea........78
Beste zenbait........78
Film bat sortzea........79
Musika........79
Telefonora musika transferitzea........80
Abesti bat erreproduzitzea........80
Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea........81
Erreprodukzio-zerrenda bat ezabatzea........81
Irratia erabiltzea........82
Irrati-kateak bilatzea........82
Kateak berrezartzea........83
Irratia entzutea........83
FM transmisorea erabiltzea musika erreproduzitzeko........83


## Antolakuntza-ezaugarriak


Antolatzailea........84
Egutegian gertaera bat gehitzea........84
Egutegiaren ikuspegi lehenetsia aldatzea........85
Zeregin-zerrendari elementu bat gehitzea........85
Buscador fechas tresna erabiltzea........85
Alarma bat ezartzea........86
Ohar bat gehitzea........86
Ahots-grabagailua........86
Soinua edo ahotsa grabatzea........87
Ahots-grabazioa bidaltzea........87
Kalkulagailua erabiltzea........87
Unitate bat bihurtzea........88
Kronometroa........88
Munduko erlojuari hiri bat gehitzea........88

PC Sync........89
LG PC Suite ordenagailuan instalatzea........89
Telefonoa eta PCa konektatzea........89
Telefonoko datuen segurtasun-kopiak eta haiek leheneratzea........90
Telefonoaren fitxategiak ikustea PCan........90
Kontaktuak sinkronizatzea........91
Mezuak sinkronizatzea........91
Musika sinkronizatzea........91
Musika transferitzea Windows Media Player erabilita........92
iSync erabiltzea........92
DivX bihurgailua........93


## Sarea


Arakatzailea........94
Sarera sartzea........94
Gogokoak gehitzea eta haietara sartzea........94
RRS irakurgailua erabiltzea........95
Gordetako web-orri batera sartzea........95
Nabigatzailearen historia ikustea........95
Web-nabigatzailearen doikuntzak aldatzea........96
Telefonoa modem gisa erabiltzea........96


## Doikuntzak


Pantailaren doikuntzak aldatzea........98
Zure profilak pertsonalizatzea........98
Telefonoaren doikuntzak aldatzea........99
Ukitzeko doikuntzak aldatzea........100
Konektagarritasuneko doikuntzak aldatzea........100
Memoria-administratzailea erabiltzea........102
Hegazkin modua erabiltzea........103
Fitxategiak bidaltzea eta jasotzea Bluetooth bidez........103
Bluetootharen doikuntzak aldatzea........104
Telefonoa beste Bluetooth gailu bati lotzea........105
Bluetooth entzungailuak erabiltzea........105
WiFia........106
Softwarea eguneratzea........108

## Osagarriak........109
## Sare-zerbitzuak........110
## Datu teknikoak........110


## Jarraibideak


Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak........112
Arazoak konpontzea........118

# Telefonoa ezagutzea

**Bateria ateratzeko botoia**
**Entzungailu estereoen konektorea**

**Pizteko tekla**
Telefonoa piztu edo itzaltzen du.

**Entzungailua**

**Barneko kamera**
**Hurbiltasun-sentsorea**

**Amaitzeko tekla**
- Sarrerako deia ez du onartzen.
- Sakatu behin pantaila inaktibora itzultzeko.

**Aldi bereko zereginen tekla**

**Deitzeko tekla**
Telefono-zenbakiak markatzen ditu, eta sarrerako deiei erantzuten die.





**OHARRA.** telefonoaren gainean objektu astunen bat jarriz gero edo haren hainean eseriz gero, LCD pantaila eta ukipen-pantailaren funtzioa kaltetu daitezke. Ez ukitu LCDaren hurbiltasun-sentsorearen geruza. Sentsorearen funtzionamendua kaltetu daiteke.



**Kargagailua, datu-kablea (USB)**

**IRADOKIZUNA:**
USB kablea konektatu aurretik, itxaron telefonoa piztuta eta sarera konektatuta egon arte.



**Bolumen-teklak**
- **Pantaila inaktiboarekin:** teklatuaren bolumena
- **Hitz egiten ari zarela:**
- **entzungailuaren bolumena**

Pista bat erreproduzitzean: bolumena kontrolatzen du etengabe.

**Kamera-tekla**
- Luze sakatu Ir a Cámara tekla, menura zuzenean sartzeko.

# Telefono irekiaren ikuspegia




# SIM txartela eta bateria sartzea

**1 Atera bateriaren tapa**

Luze sakatu bateria askatzeko botoia (telefonoaren goialdean), eta altxatu tapa.



**2 Atera bateria**

Eutsi bateriaren goiko aldeari, eta atera konpartimentutik.



⚠ **OHARRA.** Ez atera bateria telefonoa piztuta dagoela, kaltetu egin baitaiteke.

⚠ **OHARRA:** ez ireki bateriaren tapa GPSa, WiFia edo Bluetootha aktibatuta badaude. Antena bateriaren tapan dago.

# SIM txartela eta bateria sartzea

**3 Sartu USIM txartela**

Mugitu USIM txartela dagokion tokirantz. Ziurtatu txartelaren urre-koloreko kontaktuak behera begira daudela. Atera USIM txartela kontuz kanpora tira eginda.



**4 Instalatu bateria**

Sartu bateriaren goiko aldea bateriaren tokiko goiko aldean. Ziurtatu bateriaren kontaktuak telefonoaren borneekin lerrokatuta daudela. Bultza bateriaren beheko aldeari, dagokion tokian sartu arte.



# Kargatu telefonoa

Lerratu tapa KM900en alboan dagoen zirrikituaren tapan. Sartu kargagailua, eta konektatu elikadura elektrikoko hartune batera. Pantailan “Batería llena” mezua agertu arte kargatu behar da KM900 modeloa. OHARRA : lehen karga osorik egin behar da, bateriaren bizitza erabilgarria hobetzeko.

**OHARRA:** Ez hartu kontuan “Batería llena” dioen lehen mezua, eta utzi telefonoa kargatzen gau osoan (edo 14 ordura arte).



# Memoria-txartela

**Memoria-txartela instalatzea**

Telefonoaren memoria handitu egin dezakezu memoria-txartel batekin.

**OHARRA:** aukerako osagarria da memoria-txartela.

**1** Lerratu goialdeko memoria-txartela zirrikituan, bere lekuan ahokatu arte ("klik" egingo du). Egiaztatu urre-koloreko kontaktu-eremua beherantz jarrita dagoela.

> ⚠ **Ohartarazpena:** Lerratu memoria-txartela zirrikituan; bestela, txartela kaltetu egin daiteke.









**2** Itxi memoria-txartelaren tapa.

**Memoria-txartela formateatzea**

Baliteke memoria-txartela dagoeneko formateatua egotea. Hala ez bada, formateatu egin beharko duzu erabili aurretik.

**OHARRA:** formateatzean, txartelaren fitxategi guztiak ezabatuko dira.

**1** Hasierako pantailan, hautatu eta joan Ajustes del teléfono aukerara, Ajustes fitxan.

**2** Joan Administrador de memoria aukerara, eta, gero, hautatu Memoria externa.

**3** Ukitu Formatear eta berretsi aukeratu duzuna.

**4** Pasahitza ezarri baduzu, idatzi. Txartela formateatu egingo da, eta prest egongo da erabiltzeko.

**OHARRA:** memoria-txartelak fitxategiak baditu, baliteke formateatu ondoren eduki horren karpeten egitura aldatzea, fitxategi guztiak ezabatzen baitira.

## Kontaktuak transferitzea

SIM txartelaren kontaktuak telefonora transferitzeko:

**1** Comunicación fitxan, joan Contactos atalera, hautatu , eta, ondoren, Cambiar ubicación.

**2** Ukitu Copiar en teléfono.

**3** Hautatu Seleccionar todo edo izenak banan-banan, eta ukitu Copiar en teléfono.

# Menuen mapa

Ukitu ⁘ pantaila inaktiboan **Menu nagusi** bat irekitzeko. Hortik menu gehiagotara sar zaitezke ikono batetik bestera joanda: **Comunicación**, **Multimedia, Utilidades** eta **Ajustes**.

| KOMUNIKAZIOA | MULTIMEDIA |
|---|---|
| Kontaktuak | Musika |
| Historia berriena | Kamera |
| Arakatzailea | Bideokamera |
| Mezuak | Galeria |
| Posta elektr. | Nire gauzak |
| Markaketarako tekla | Jokoak eta aplikazioak |
| Bideo-deia | FM irratia |
| Google | Movie maker |

| TRESNAK | DOIKUNTZAK |
|---|---|
| Alarmak | Profilak |
| Antolatzailea | Pantailaren doikuntzak |
| Oharrak | Telefonoaren ezarpenak |
| Kronometroa | Bluetootha |
| Ahots-grabagailua | WiFia |
| Kalkulagailua | Deien konfigurazioa |
| Munduko erlojua | Konektagarritasuna |
| Gehigarriak | Mezuen doikuntzak |



# Hasierako pantaila

Pantaila honetatik, menuaren aukeretara sar zaitezke, deiak egin ditzakezu, telefonoaren egoera ikusi eta beste gauza asko.

## Ukipen-pantailari buruzko iradokizunak

Pantaila nagusia leku ezin hobea da ukipen-pantaila ezagutzeko.

Elementu bat hautatzeko, ukitu ikonoaren erdialdea.

- Ez sakatu gogorregi; pantaila sentikorra da, eta ukitu arin eta irmoak detektatzeko gai da.
- Erabili atzamarraren punta nahi duzun aukera ukitzeko. Saiatu beste teklarik ez ukitzen.
- Pantailaren argia itzalita dagoela, sakatu pizteko tekla edo blokeatzeko/desblokeatzekoa, ukipen-pantailan, hasierako pantailara itzultzeko.
- KM900 erabiltzen ari ez bazara, blokeo-pantailara itzuliko da.

# Hasierako pantaila

## Hasierako pantaila pertsonalizatzea

1 Sartzeko hasierako pantaila

2 Widget-en hasierako pantaila




3 Kontaktuen hasierako pantaila

4 Multimediako hasierako pantaila

- **KM900 telefonoarekin komunikatzea:** interfazeak lau motatako hasierako pantailak ditu, aurreko irudian ikusten den bezala. Hasierako pantaila batetik bestera joateko, lerratu azkar behatza pantailaren gainean, ezkerretik eskuinera edo alderantziz.
- **Hasierako pantaila pertsonalizatzea:** hasierako pantaila-mota bakoitzean, objektuak gehitu edo ukitu ditzakezu objektuak ukituta eta atzamarra pantaila gainean edukita.




## Laster-teklak

Hasierako pantailako laster-teklekin, ukitu bakarra eginda sar zaitezke funtziorik ohikoenetara.



Hasierako pantailako laster-teklekin, ukitu bakarra eginda sar zaitezke funtziorik ohikoenetara.

Ukitu hau ukipen-markaketako teklatua ikusteko eta dei bat egiteko. Idatzi zenbakia teklatu normalarekin, eta ukitu **Llamadas de voz**, edo sakatu . Zenbaki horretara bideo-dei bat egiteko, ukitu **Videollamada** zenbakia sartu



Ukitu ikono hau kontaktu-zerrenda irekitzeko. Telefono-zenbaki bat bilatzeko: idatzi kontaktuaren izena ukipen-teklatuarekin. Kontaktu berriak sortu eta lehendik dituzunak edita ditzakezu.



Ukitu hau **Mensajes** aukera-menura sartzeko. Hemendik, SMS berri bat sor dezakezu.



Ukitu ikono hau menu osoa irekitzeko; lau azpimenutan banatua dago.

# Hasierako pantaila

## Ukipen-pantaila

KM900 telefonoaren ukipen-pantailaren kontrolak modu dinamikoan aldatzen dira, une bakoitzean egiten ari den zereginen arabera.

### Aplikazioak irekitzea

Edozein aplikaziotara sartzea oso erraza da: dagokion ikonoa sakatu besterik ez da egin behar.




### Desplazamendua

Arrastatu alderik alde leku batetik bestera joateko. Zenbait pantailatan, webguneetakoetan, adibidez, gora edo behera ere mugi zaitezke.




### Handitzea edo txikitzea

Argazkiak, webguneak, mezu elektronikoak edo mapak handituta edo txikituta ikus ditzakezu. Elkartu edo urrundu behatzak pantailaren gainean.






01
02
03
04
05
06
07
08

## Egoera-barrako ikustea

Egoera-barran hainbat ikono agertzen dira seinalearen intentsitatea, mezu berririk dagoen ala ez eta bateriaren karga-maila adierazteko. Bluetootha edo GPRSa aktibatuta dauden ere adierazten du. Beheko taulan agertzen da egoera-barrako ikonoen esanahia.

| Ikonoa | Deskribapena |
|---|---|
| | Zerbitzurik ez |
| | 2 G |
| | 3 G |
| | EDGE |
| | HSDPA |
| | WiFia aktibatuta |
| | Bluetooth mezua |
| | Bluetooth esku libreko entzungailu monofonikoa |

| Ikonoa | Deskribapena |
|---|---|
| | Bluetooth entzungailu monofonikoak/estereofonikoak |
| | Bluetooth entzungailu estereofonikoak |
| | Bluetooth entzungailu monofonikoak |
| | Bluetooth-a aktibatuta |
| | Bluetooth bidez inprimatzea |
| | Bluetooth bidez transferitzea |
| | Bluetootharen ikusgarritasuna |
| | Musika Bluetooth bidez |
| | Deskargatzen |
| | Deskarga amaitua |
| | Deskarga ezeztatua |
| | Sarrerako deien aukerak |
| | Internet |
| | Bilatzen |
| | Deiak desbideratzea |
| | Dei errefusatua |
| | Segurtasuna |

| Ikonoa | Deskribapena |
|---|---|
| | Entzungailuak |
| | HomeZone |
| | Desplazamendua |
| | Alarma |
| | Oharra (Egutegia) |
| | Musika geldituta |
| | Musika erreproduzitzen |
| | Musika-erreprodukzioa FM bidez |
| | Irrati-erreprodukzioa FMn |
| | FM hedapena |
| | Mezu elektronikoak bidaltzea |
| | Mezu elektronikoa jasoa |
| | MMSak |
| | MMSak bidaltzea |
| | MMSa jaso da |
| | Galdutako deia |
| | SMSak bidaltzea |
| | Ahots-postontzi berria. |

| Ikonoa | Deskribapena |
|---|---|
| | Mezu berria |
| | Errorea gertatu da mezua bidaltzean |
| | Mezu elektroniko berria |
| | Push mezua |
| | Hegaldiko modua |
| | Kanpoaldekoa |
| | Isilik |
| | Dei-tonu pertsonalizatuak 1-10 |
| | Bibrazio ondorengo txirrin-tonua |
| | Bibrazioarekin batera egiteko txirrin-tonua |
| | Kanpoko memoria |
| | Bateriaren egoera |

# Hasierako pantaila

## Multitarea funtzioaren erabilera

Sakatu Multitarea tekla, **Multitarea** menua irekitzeko. Hor, irekitako aplikazio guztiak amaitu ahal izango dituzu.






# Deiak

**IRADOKIZUNA:** Sakatu pizteko tekla ukipen-pantaila blokeatzeko eta nahi gabe deirik ez egiteko.

## Dei bat edo bideo-dei bat egitea

1. Ukitu menua irekitzeko.
2. Markatu zenbakia teklatuarekin. Digitu bat ezabatzeko, sakatu ezabatzeko tekla.
3. Sakatu tekla deia egiteko.
4. Deia amaitzeko, sakatu tekla.

**IRADOKIZUNA:** + ikurra sartzeko eta nazioarteko deiak egiteko, ukitu ✱ bi aldiz, edo luze sakatu 0+.

**IRADOKIZUNA:** Zenbaki bat gorde, mezu bat bidali edo kontaktuak bidal ditzakezu ukituta.

## Kontaktu bati deitzea

1. Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** aukerara sartzeko.
2. Mugitu zerrendan edo sartu deitu nahi duzun kontaktuaren lehen letra(k) ukituta.
3. Alboko zerrendan, ukitu deitu nahi duzun kontaktua, eta hautatu zenbakia, bat baino gehiago baldin badитu.
4. Ukitu **Llamadas de voz** edo **Videollamada**.

## Dei bati erantzutea edo ez onartzea

Telefonoak jotzen badu, sakatu tekla erantzuteko. Ukitu tekla finkoa sarrerako dei bat ez onartzeko.

## Sarrerako deien aukerak




**Bozgorailua:** ukitu bozgorailua aktibatzeko.

**Isilik:** ukitu mikrofonoa desaktibatzeko; hala, zure solaskideak ez zaitu entzungo.

**Itxaroten:** ukitu dei bat zain jartzeko.

**Aukerak:** sarrerako deiaren aukera gehigarrien zerrendako edozein aukera hautatu ahal izango duzu, adibidez, Crear nueva nota eta Ir a mensajes, dei bat martxan dagoela zure mezuak ikusteko eta kontaktuak gehitzeko. Puntu horretan ere amai dezakezu deia, Cancelar llamada ukituta.

Teclado: ukitu zenbaki-teklatua aktibatzeko eta aukeretan zenbakiak dituzten menuetan ibiltzeko, dei-zentroetara edo zerbitzu telefoniko automatizatuak dituzten beste zerbitzu batzuetara deitzeko.

Notas: gehitu ohar bat dei bat martxan dela.

Contactos bilatu kontaktuak dei bat egiten ari zarela.

## Dei baten bolumena doitzea

Dei bat martxan dela bolumena doitzeko, erabili telefonoaren eskuineko aldeko goranzko eta beheranzko botoia.

## Markatze lasterra

Maiz erabiltzen duzun kontaktu bat eslei diezaiokezu markatze lasterreko zenbaki bati.

1 Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** aukerara sartzeko.

2 Ukitu eta hautatu **Marcación rápida**.

Ahots-postontzia ezarrita dago 1 markaketa lasterreko aukeran, eta ezin da aldatu. Ukitu beste edozein zenbaki markaketa lasterreko kontaktu bati esleitzeko.

4 Kontaktuen zerrenda irekiko da. Hautatu zer kontakturi esleitu nahi diozun zenbakia, dagokion telefono-zenbakia behin ukituta.

Markaketa bizkorra erabilita zenbaki batera deitzeko, ukitu hasierako pantailan, eta, gero, luze sakatu esleitutako zenbakia, kontaktua pantailan agertu arte. Deia automatikoki hasiko da; ez duzu **Llamadas de voz** ukitu beharrik.

## Bigarren deia egitea

1 Lehen deian, ukitu Teclado eta hautatu zer zenbakitara deitu nahi duzun.

2 Markatu zenbakia edo bilatu kontaktua (ikus **Realización de una llamada** informazio gehiago eskuratzeko).

3 Ukitu deia hasteko.

01
02
03
04
05
06
07
08

4 Bi deiak agertuko dira deiaren pantailan. Lehen deia blokeatu egingo da, eta zain jarri.

5 Ukitu eta, ondoren, aukeratu **Conectar**.

7 Bi deiak amaitzeko, sakatu **Terminar**.




**OHARRA:** egindako dei guztiak kobratuko zaizkizu.

## DTMF desaktibatzea

DTMF funtzioaren bidez, zenbakizko komandoak erabiliz deien menu automatizatuetan nabiga daiteke. Lehenespenez aktibatuta dago DTMF. Deia egin bitartean desaktibatzeko (adibidez, zenbaki bat idazteko), ukitu eta hautatu **Deshabilitar DTMF**.

## Deien erregistroak ikustea

Hasierako pantailan, ukitu , eta, ondoren, Comunicación fitxan, **Historial reciente**. Aukera hauek ditu:

**Todo el historial**: markatutako, jasotako eta galdutako deien zerrenda osoa ikusteko (ahots-deiak, bideo-deiak eta mezuak soilik).

**Llamadas perdidas:** dei galduen zerrenda bistaratzeko.

**Sólo llamadas:** markatutako zenbaki guztien zerrenda ikusteko.

**Sólo mensajes:** multimedia- eta testu-mezuen trukea izan duzun zenbaki guztien zerrenda ikusteko.

**Sólo videollamadas:** bideo-dei guztien zerrendak ikus ditzakezu.

**IRADOKIZUNA:** Edozein dei-erregistrotatik, ukitu eta hautatu **Eliminar todo**, gordetako elementu guztiak ezabatzeko.

**IRADOKIZUNA:** Ukitu dei-erregistroko banakako edozein sarrera, horren data, ordua eta iraupena ikusteko.

## Deien desbideratzea erabiltzea

1 Ukitu eta hautatu **Ajustes de llamadas**, Ajustes fitxan.

2 Ukitu **Desvío llamadas** eta hautatu **Llamadas de voz** edo **Videollamadas**.

3 Aukeratu dei guztiak desbideratzea, linea okupatua dagoenean, erantzunik ez dagoenean edo hitz egin ezin duzunean.

4 Ukitu **Activar** desbideratzea aktibo egon dadin.

5 Idatzi deiak zein zenbakitara desbideratzea nahi duzun.

**OHARRA :** deien desbideratzeak gastuak sortzen ditu. Informazio gehiago nahi baduzu, jarri sare-hornitzailearekin harremanetan.

**IRADOKIZUNA:** Deien desbideratze guztiak desaktibatzeko, **Desvío de Llam** menuan hautatu **Desactivar todo**

## Deien murrizketa erabiltzea

1 Ukitu eta hautatu **Ajustes de llamadas**, Ajustes fitxan.

2 Ukitu **Desvío llamadas** eta hautatu **Llamadas de voz** edo **Videollamadas**.

3 Hautatu bost aukera hauetako bat edo gehiago:

**Bidalitakoak**

**Nazioartekoak**

**Nazioartekoak estatukoak izan ezik**

**Jasotakoak**

**Atzerrian jasotako deia**

4 Sartu deiak murrizteko pasahitza. Galdetu sare-operadoreari zerbitzu honi buruz.

**IRADOKIZUNA:** Hautatu **Números de marcación fija**, zure telefonotik deitzeko zenbaki-zerrenda bat aktibatu eta konpilatzeko. Operadoreak emandako PIN2 kodea behar duzu. Markaketa finkoko zerrenda sortzen baduzu, zerrenda horretako zenbakietara bakarrik deitu ahal izango da telefonotik.

## Deien ohiko doikuntzak aldatzea

1 Ukitu eta hautatu **Ajustes de llamadas**, Ajustes fitxan.

2 Ukitu **Ajustes comunes**. Parametro hauek alda ditzakezu:

**Llamada rechazada**: **aktibatzek**o, lerratu etengailua ezkerrerantz.

Ukitu **lista de llamadas rechazadas**, eta hautatu dei guztiak errefusatzea, kontaktu batzuk soilik errefusatzea, talde zehatz batzuk errefusatzea edo erregistratu gabeko zenbakien deiak errefusatzea (agendan ez dauden zenbakiak).

**Enviar mi número**: adierazi deiaren hartzaileak zure zenbakia ikus dezan nahi duzun.

**Rellamada automática**: **aktibatzeko**, lerratu etengailua ezkerrerantz, eta **desaktibatzeko**, lerratu eskuinerantz.

**Aviso de minutos: aktibatzeko**, lerratu etengailua ezkerrerantz; deiak iraun bitartean, minuturo tonu bat entzungo duzu.

**Respuesta Bluetooth:** hautatu **Manos libres** Bluetooth entzungailu batekin deiak erantzuteko, edo **Teléfono**, telefonoaren tekla batekin erantzuteko.

**Guardar nuevo:** hautatu **Activado** edo **Desactivado**, zenbaki berri bat gordetzeko.

## Bideo-deiaren doikuntzak aldatzea

1 Hasierako pantailan, ukitu eta joan **Ajustes de llamadas** aukerara, Ajustes fitxan.

2 Ukitu **Ajustes de videollamada** aukera, eta hautatu bideo-deien parametroak. Hautatu irudi finkoa bat erabili nahi duzun, eta hautatu edo aktibatu ispilua, bideo-deia egiten ari zarela zeure burua pantailan ikusteko.

## Kontaktuak bilatzea

Kontaktu bat bilatzeko bi era daude:

**Hasierako pantailatik**

1 Hasierako pantailan, ukitu **Contactos** aukerara sartzeko. Ukitu , eta idatzi kontaktuaren izena teklatuarekin.

2 Ukitu **Videollamada, Llamada de voz** edo tekla deia hasteko.

**IRADOKIZUNA:** taldekako bilaketa egin dezakezu pantailaren goialdean dagoen Contactos fitxa ukituta, eta **Grupos** hautatuta. Talde guztien zerrenda bistaratuko da.

**Menu nagusitik**

1 Ukitu eta, ondoren, hautatu **Contactos**, Comunicación menuan.

2 Ukitu , eta **Buscar.**

## Kontaktu berri bat gehitzea

1 Hasierako pantailan, ukitu , gero, hautatu , eta ukitu **Nuevo contacto** botoia.

2 Hautatu kontaktua **Telefono**an ala **SIM**ean gorde nahi duzun.

3 Kontaktu bakoitzari irudi bat gehitu nahi badiozu, ukitu **Añadir imagen**.

4 Sartu kontaktu berriaren izen-abizenak. Ez da derrigorrezkoa biak sartzea, baina bietako bat aukeratu behar da.

5 Sartu gehienez bost zenbaki, eta esleitu mota bat: **Móvil, Particular, Oficina, Localizador, Fax, VT** eta **General**.

7 Sartu posta elektronikoaren helbidea.

7 Sartu kontaktua talde hauetako batean edo gehiagotan: **Ningún grupo, Familia, Amigos, Compañeros, Colegio** edo **VIP**.

8 Aukera hauetako bat ere eslei diezaiekezu: **Tono de timbre, Página de inicio, Dirección particular, Nombre empresa, Profesión, Dirección empresa, Aniversario** eta **Notas**

9 Sakatu kontaktua gordetzeko.

**IRADOKIZUNA:** Kontaktuentzako talde pertsonalizatuak sor ditzakezu. Ikus **Talde bat sortzea.**

## Talde bat sortzea

1 Hasierako pantailan, ukitu , eta, ondoren, **Contactos**, Comunicación fitxan.

2 Ukitu Contactos pantailaren goialdean, eta **Grupo**, talde berri bat hautatzeko.

3 Sartu izen bat talde berriarentzat.

4 Ukitu .

**OHARRA:** talde bat ezabatzen baduzu ere, talde horri esleitutako kontaktuak ez dira ezabatzen. Kontaktu-zerrendan gordeta jarraituko dute.

**IRADOKIZUNA:** Lehendik dagoen talde bat alda dezakezu behin hautatuta. Hautatu Ver miembros, Editar grupo, Enviar mensaje, Enviar tarjeta de visita edo Eliminar grupo.

## Kontaktuen doikuntzak aldatzea

Kontaktuen doikuntzak nahi bezala alda ditzakezu.

1 Ukitu **Contactos**, Comunicación fitxan, hautatu [≡], eta sartu **Ajustes de contacto** aukerara.
2 Parametro hauek alda ditzakezu:
3 **Nombre mostrado**: hautatu lehenengo zer agertzea nahi duzun: kontaktu baten izena edo abizenak.

   **Copiar:** SIM txarteleko kontaktuak telefonora kopiatzeko nahiz alderantzizkoa egiteko aukera ematen du. Eragiketa hori kontaktu guztiekin banan-banan egin dezakezu, edo guztiekin aldi berean.

**Mover:** funtzio hori Copiar funtzioaren antzekoa da, baina kontaktua kokapen berrian soilik gordeko da. Hala, SIMeko kontaktu bat telefonora eramanez gero, SIM memorian ezabatu egingo da.

**Kontaktuak ezabatzea:** kontaktu guztiak ezabatzeko. Ukitu **Sí** kontaktu guztiak ezabatu nahi badituzu.

**Info. memoria:** aplikazioen memoriaren gaitasunari buruzko informazioa ikusteko balio du.

## Informazioa ikustea

1 Ukitu **Contactos**, **Comunicación** fitxan, hautatu [≡] eta aukeratu **Información**.
2 Hortik hauek ikus ditzakezu: **Números de marcación de servicio, Números propios, la Info. memoria** (memorian gelditzen den espazioa) eta **Mi tarjeta de visita**.

**IRADOKIZUNA:** Zure bisita-txartela gehitzeko, hautatu **Mi tarjeta de visita**, eta gehitu informazioa, kontaktuekin egiten duzun bezala. Amaitzeko, ukitu **Guardar** ikonoa.

## Mezuak

KM900ek SMS, MMS eta posta elektronikoa konbinatzen ditu menu intuitibo eta erraz batean.

Mezuen zentroan sartzeko bi modu daude:

1 Hasierako pantailan, ukitu edo eta, ondoren, Comunicación fitxan, **Mensajes**.

## Mezuak bidaltzea

1 Ukitu eta **Escribir mensaje**, mezu berri bat hasteko.

2 Ukitu **Para** eta adierazi hartzailearen zenbakia edo sartu kontaktu eta zenbaki gogokoenetara. Hainbat kontaktu gehitu daitezke. Amaitutakoan, ukitu **Enviar SMS.**

3 Testua idatzi ondoren, SMS edo MMS bat bidal dezakezu, edo **Email** hautatu, mezu elektroniko bat bidaltzeko.

**IRADOKIZUNA:** Pertsona bati bidaltzen diozun 160 karaktereko mezu bakoitzeko, mezu baten bidalketa fakturatuko zaizu.

4 Ukitu **Insertar** testu-txantiloi bat, multimedia-txantiloiak, aurpegierak izenak eta zenbakiak, diapositiba berri bat, gai bat edo sinadura berri bat gehitzeko.

**OHARRA.** 160 karaktereko muga aldatu egin daiteke herrialde batetik bestera, SMSa kodifikatzeko erabiltzen den moduaren arabera.

**OHARRA.** SMS bati irudi-, bideo- edo soinu-fitxategi bat gehitzen badiozu, MMS bihurtzen da automatikoki, eta horri dagokion kostua kobratuko zaizu.

## Testua idaztea

Testua sartzeko bost modu daude:

Ukipen-pantaila

T9 Ukitu ikono hau T9 testu prediktiboa sartzeko modua aktibatzeko.

Ukitu ikono hau, irakurtzeko hizkuntza aldatzeko.

123 @#* Ukitu zenbakien, sinboloen eta testuaren teklatura aldatzeko.

Erabili Shift, testua sartzeko modu guztietan (adibidez, maiuskulak edo minuskulak) teklatu-modu batetik bestera mugitzeko.

Zuriunea sartzeko, ukitu .

## T9 prediktiboa

T9 moduan, T9 ikusiko duzu. T9 moduak hiztegi integratu bat erabiltzen du; hiztegi horrek erabiltzaileak idazten dituen hitzak ezagutzen ditu, ukitzen dituen tekla-sekuentzien arabera. Ukitu letrari lotutako zenbaki-tekla, eta, ondoren, hiztegiak erabili nahi duzun hitza aurreikusiko du.

Adibidez, ukitu 8,3,5,3,3,6,6, 6, “teléfono” idazteko.

## Eskuzko Abc

Abc moduan tekla behin baino gehiagotan ukitu beharko duzu letra bat sartzeko. ‘hielo’ idazteko, adibidez, ukitu 4 bi aldiz, 4 hiru aldiz, 3 bi aldiz, 5 hiru aldiz eta 6 hiru aldiz.

## Posta elektronikoa konfiguratzea

Kanpora joaten zarenean, harremanetan jarrai dezakezu KM900 telefonoaren posta elektronikoko funtzioei esker. POP3 edo IMAP4 posta elektronikoko kontu bat konfiguratzea erraza da, eta azkar egin daiteke.

1 Hasierako pantailan, ukitu eta joan **Email** aukerara, Comunicación fitxan.

2 Ukitu **Escr correo.** Posta elektronikoko kontua konfiguratu gabe badago, abiarazi posta elektronikoa konfiguratzeko laguntzailea.

**IRADOKIZUNA:** Posta elektronikoko kontu bat definituta badago, laguntzailea ez da automatikoki aktibatzen.

3 Gero, hautatu kontua nola konfiguratu:

**Dirección de Email:** adierazi kontuaren helbide elektronikoa.

**Dirección del servidor**: idatzi zerbitzariaren helbidea.

**Dominio:** sartu domeinua.

**Nombre de usuario:** idatzi zure kontuaren erabiltzaile-izena.

**Contraseña:** idatzi kontuaren pasahitza.

Kontuaren doikuntza espezifikoak ere egin ditzakezu hemen: **Ajustes > Ajustes de mensaje > Email > Cuenta de correo**. Doikuntza hauek egin ditzakezu:

**Título:** Idatzi kontuarentzako izena.

**Nombre de usuario:** adierazi kontuaren erabiltzailearen izena.

**Contraseña:** idatzi kontuaren pasahitza.

**Dirección de Email**: adierazi kontuaren helbide elektronikoa.

**Direcc. correo elec. respuesta:** sartu erantzuteko posta elektronikoaren helbidea.

**Servidor de correo saliente**: idatzi irteerako posta elektronikoaren zerbitzariaren helbidea.

**Servidor de correo entrante:** idatzi sarrerako posta elektronikoaren zerbitzariaren helbidea.

**Tamaño máxima recepción:** hautatu zure mezu elektronikoen gehienezko neurria: 1 MB gehienez.

**Tipo de buzón:** jarri postontzi-mota: POP3 edo IMAP4.

**Guardar en servidor:** hautatu mezu elektronikoak zerbitzarian gorde nahi dituzun. IMAP4 kontuetan beti gordetzen dira kopiak.

**Guardar enviados en:** hautatu non gorde nahi dituzun bidalitako mezu elektronikoak (IMAP4 postontzietan). POP3 postontzietan, bidalitako mezu elektronikoak telefonoan gordetzen dira beti.

**Opción de descarga:** hautatu nola deskargatu nahi dituzun mezu elektronikoak. POP3rako, hautatu Sólo encabezado edo Todo, cuerpo incluido, eta, IMAP4rako, berriz, cuerpo edo Todo.

**Punto de acceso:** hautatu Interneteko sarbide-puntu bat.

**Recuperar sólo nuevos:** POP3 postontzietarako dago eskuragarri menu hori.

**Configuración avanzada:** aukera ematen dizu konfigurazio aurreratua erabiltzeko.

Kontua konfiguratu ondoren, Email karpetako kontu-zerrendan agertuko da.

## Mezu elektroniko bat bidaltzea kontu berri baten bidez

1. Ukitu hasierako pantailan, eta sartu **Email** aukerara Comunicación fitxan, mezu berri bat sortzeko.
2. Sartu hartzailearen helbidea eta idatzi zure mezua. Irudi-, bideo-, audio-fitxategiak eta bestelakoak ere erantsi ditzakezu.
3. Ukitu **Enviar correo** mezua bidaltzeko.

## Posta elektronikoaren doikuntzak aldatzea

Posta elektronikoaren doikuntzak nahi bezala alda ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, ukitu eta joan **Ajustes de mensajes** aukerara, Ajustes fitxan.
2. Hautatu **Email**.
3. Doikuntza hauek alda ditzakezu:

**Cuentas de Email:** administratu elektronikoko kontuak.

**Permitir Email de respuesta:** hautatu irakurri dela jakinarazteko mezuak bidali nahi dituzun.

**Solicitar Email de respuesta:** hautatu irakurri dela jakinarazteko mezuak eskatu nahi dituzun.

**Intervalo de recuperación:** hautatu KM900ek zer maiztasunekin egiaztatutako dituen mezu elektroniko berriak.

**Incluir mensaje en Reenv. y Resp.:** jatorrizko mezua erantzunean sartu nahi duzun hautatzeko aukera ematen dizu.

**Incluir archivo adjunto:** aukera ematen du erantzunetan jatorrizko fitxategia eransteko.



**Recuperación auto, en itinerancia**: hautatu atzerrian zaudenean zure mezuak automatikoki berreskuratu nahi dituzun *(roaming)*.

**Notificación nuevo Email:** hautatu mezu berrien jakinarazpenak jaso nahi dituzun mezu bat azaldu gabe.

**Firma:** mezu elektronikorako sinadura sortu eta funtzio hori aktibatzeko.

## Mezuen karpetak

Azkar ohituko zara KM900 telefonoaren karpeten egitura intuitibora. Posta elektronikoko kontu bat konfiguratzen baduzu, kontu bakoitzerako karpetak eduki ditzakezu.

**Bandeja de entrada**: jasotzen dituzun mezu guztiak sarrerako ontzian gordetzen dira. Hortik, besteak beste, mezuak ikusi eta ezaba ditzakezu.

**Bandeja de salida:** bidaltzen ari diren mezuak aldi baterako gordetzeko ontzia da.

**Enviados:** bidalitako mezuak karpeta horretan gordetzen dira.

**Borradores:** idazten amaitu gabe dituzun mezuak gorde ditzakezu karpeta horretan.

**Marco organizado:** zure solaskidearekin Messenger bidez trukatu dituzun mezuak. Irudia eta mezua aldi berean gorde ditzakezu.

**Mis carpetas:** mezuak gordetzeko karpeta berriak sor ditzakezu.

## Txantiloiak erabiltzea

Sarrien bidaltzen dituzun SMS eta MMS mezuen txantiloiak sor ditzakezu. Dagoeneko badituzu txantiloi batzuk, eta alda ditzakezu.

1 Mezu berriak idazten ari zarela, sartu txantiloiak (**Plantillas**) **Insertar** aukera-menutik.

2 Hautatu **Plantillas de texto** edo **Plantillas multimedia**. Txantiloi guztiak gehitu, editatu edo ezaba ditzakezu. Mezu bat editatzeko, hautatu, aldatu, eta ukitu **Guardar plantilla**.

## Aurpegierak erabiltzea

Alaitu zure mezuak, aurpegierak erabiliz. Telefonoak baditu aurpegiera ospetsuenak.

1 Mezu berriak idazten ari zarela, sartu aurpegierak (**Emoticonos**) **Insertar** aukera-menutik.

2 Ikono berri bat gehitu edo aurpegiera bat edo gehiago ezaba ditzakezu.

## Testu-mezuen doikuntzak aldatzea

KM900en mezuen doikuntzak aurrez ezarrita daude, mezuak berehala bidaltzeko aukera izan dezazun. Doikuntzak nahi bezala alda ditzakezu.

Sartu **Ajustes de mensaje** aukerara, Ajustes fitxan, eta ukitu **Mensaje de texto**. Parametro hauek alda ditzakezu:

**Centro SMS:** sartu mezu-zentroaren informazioa.

**Informe de entrega:** lerratu etengailua ezkerrera, mezua entregatu izanaren baieztapena jasotzeko.

**Período de validez:** mezuak mezu-zentroan gordeta zenbat denbora egongo diren hautatzeko balio du.

**Tipos mensajes:** bihurtu mezua: **Voz, Fax, X.400** edo **Email.**

**Codificación de caracteres:** karaktereeen kodetzea aukeratzeko. Horrek eragina du mezuaren tamainan, eta, horren ondorioz, datuen transmisioaren kostuan ere bai.

**Enviar texto largo como:** aukera ematen du SMS aniztun gisa edo MMS gisa bidaltzeko.

## Multimedia-mezuen doikuntzak aldatzea

KM900en mezuen doikuntzak aurrez ezarrita daude, mezuak berehala bidaltzeko aukera izan dezazun. Doikuntzak nahi bezala alda ditzakezu.

**Ajustes** fitxan, hautatu **Ajustes de mensaje** eta **Mensaje multimedia**. Parametro hauek alda ditzakezu:

**Recuperación:** hautatu **Red doméstica** edo **Red de itinerancia.** Ondoren Manual hautatzen baduzu, MMS mezuen jakinarazpenak soilik jasoko dituzu. Ondoren, deskarga osoa hauta dezakezu.

**Informe de entrega:** hautatu entregatu izanaren txostena onartu eta/edo eskatu nahi duzun.

**Informe de lectura:** hautatu entregatu izanaren txostena onartu eta/edo bidali nahi duzun.

**Prioridad:** MMSen lehentasun-maila hauta dezakezu.

**Período de validez:** mezua mezu-zentroan biltegiratuta zenbat denboraz egongo den hautatzeko.

**Duración diapositiva:** hautatu diapositibak zenbat denbora egongo diren pantailan.

**Modo de creación:** Restringido/ Advertencia/ Libre

**Hora entrega:** mezu bat bidaltzeko zenbat denbora itxaron behar den hautatzeko balio du.

**Centro mjes. multim.:** sartu mezu-zentroaren informazioa.

## Beste doikuntza batzuk aldatzea

Ajustes fitxan, sartu **Ajustes de mensaje** aukerara, eta, ondoren,

**Buzón de voz:** ukitu **Nuevo perfil** edo ☰ ahots-postontziko zerbitzu bat gehitzeko. Jarri harremanetan zure sare-operadorearekin eskaintzen dituen zerbitzuei buruzko informazio gehiago eskuratzeko.

**Mensaje de servicio:** hautatu mezu-zerbitzuak nola jaso eta blokeatu nahi dituzun. Mezuen segurtasuna ere ezar dezakezu, bidaltzaile seguruen eta ez-seguruen zerrendak sortuta.

**Información servicio:** jasotze-egoera, hizkuntza eta beste zenbait doikuntza hautatzeko balio du.





## Argazkiak azkar ateratzea

1. Luze sakatu telefonoaren eskuinean dagoen kamera-tekla.
2. Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea argazkia atera nahi diozun horri begira.
3. Arin sakatu argazkia egiteko botoia, eta fokatze-lauki bat agertuko da bisore-pantailaren erdian.
4. Jarri telefonoa argazkiaren gaia fokatzeko laukian ikusteko moduan.
5. Fokatze-laukia berde jartzean, kamerak fokatuta edukiko du gaia.
6. Luze sakatu argazkia egiteko botoia.

**IRADOKIZUNA: Aurpegien detekzioa**

Funtzio horrek aurpegia automatikoki detektatzen eta erdiratzen du, argazki garbiagoak ateratzeko.

## Argazkia ateratakoan

Ateratako argazkia pantailan agertuko da. Irudiaren izena eskuineko ertzeko lau ikonorekin agertzen da.




Ukitu **Enviar** ikono hau argazkia mezu gisa, **mezu elektroniko** gisa edo **Bluetooth** edo **Blogger** bidez bidaltzeko. Kontsultatu informazio gehiago eskuratzeko mezu bat bidaltzeko moduari buruz edo Bluetooth bidez fitxategiak bidaltzeari eta jasotzeari buruz.

**Usar como** Ukitu irudia pantailaren atzealde gisa erabiltzeko.

**Renombrar** Ukitu hautatutako irudiaren izena aldatzeko.

**Editar** Ukitu hainbat tresna erabilita irudia aldatzeko.

Ukitu aurreko menura joateko.

Ukitu irudia berehala ezabatzeko.

Ukitu berehala beste argazki bat ateratzeko. Aurretik ateratako argazkia gorde egingo da.

Ukitu gordetako argazkien galeria ikusteko.

## Bisorea ezagutzea




**Atzera:** ukitu aukera hori menuen mapara itzultzeko.

**Kamera-modua:** kamera bideo- edo argazki-moduan dagoen erakusten du. Argazkiak ateratzeko ere erabil daiteke.

**Galeria:** ukitu ikono hau galeria ikusteko.

**Esposizioa:** ikus kontrastea doitzea.

**Makroa:** argazkiak hurbilagotik ateratzeko aukera ematen du.

**Flasharen egoera:** flasha aktibatzeko edo desaktibatzeko.

**Doikuntzak:** ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus Doikuntza aurreratuak erabiltzea, informazio gehiago eskuratzeko.

**IRADOKIZUNA:** Bisorearen pantaila argiagoa izateko, itxi sarbide azkarreko aukera guztiak. Bisorearen erdialdea behin bakarrik sakatu behar duzu. Aukerak berreskuratzeko, ukitu pantaila berriro.

## Flasha erabiltzea

Lehenespenez, flasha modu automatikoan jarrita dago, baina badaude beste aukera batzuk ere.

1 Hautatu , bisorearen ezkerraldean, flasharen azpimenura sartzeko.

2 Flashak hiru aukera ditu:

 **Auto:** argazki on bat ateratzeko behar duen argia aztertuko du kamerak, eta, behar badu, flasha erabiliko du.

 **Siempre desactivado:** flasha ez da inoiz erabiliko. Aukera hori erabilgarria da bateriaren energia aurrezteko.

 **Siempre activo:** kamerak flasha erabiliko du beti.

3 Nahi duzun aukera ukitzean, flasharen menua automatikoki ixten da, eta berehala beste argazki bat egin dezakezu.

4 Bisorearen flasharen egoera-ikonoa aldatu egingo da hautatutako flash-moduaren arabera.



## Kontrastea doitzea

Kontrasteak irudi baten argitasunaren eta iluntasunaren arteko aldea definitzen du. Kontraste gutxiko irudi bat lausoa izango da; kontraste handikoa, berriz, garbiagoa.

1 Ukitu .

2 Mugitu kontraste-adierazlea barran ikurrerantz, irudi lausoagoa (esposizio gutxiagokoa) lortzeko; edo, bestela, ikurrerantz, irudi garbiagoa (kontraste handiagokoa) lortzeko.

## Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu , konfigurazio aurreratuaren aukerak irekitzeko. Kameraren doikuntzak alda ditzakezu gurpila biratuta. Aukera hautatu ondoren, ukitu **OK** botoia.

**Cambiar a:** autorretratuak egiteko, LG KM900 telefonoaren barneko kamerara aldatzeko aukera ematen du. Kamera- edo bideokamera-moduen artean ere alda dezakezu.

**Tamaño de la imagen:** argazkiaren neurria aldatzeko aukera ematen du, memorian leku gutxiago har dezan edo kontaktu bati jartzeko neurri egokia izango duen argazki bat ateratzeko. Ikus **Cambiar el tamaño de la imagen**.

**Efecto de color:** hautatu kolore-tonu bat, argazki berriari jartzeko. Ikus **Seleccionar un efecto de color** atala.

**Balance de blancos:** hautatu **Auto, Incandescente, Soleado, Fluorescente** edo **Nublado.**

**Tenporizadorea:** argazkia ateratzeko botoia sakatu ondoren itxaroteko denbora konfiguratzeko balio du. Aukeratu: **Desactivado, 3 segundos, 5 segundos** edo **10 segundos**. Oso erosoa da norbera ere argazkian agertzeko.

**ISO:** ISO balioak kameraren argi-sentsorearen sentikortasuna adierazten du. ISO balioa zenbat eta handiagoa izan, kamera orduan eta sentikorragoa izango da. Oso erabilgarria da flasha erabili ezin den ingurune ilunetan. Hautatu ISO balioa: **Auto, 100,200,400 edo 800.**

**Calidad de imagen:** hautatu **Súper fina, Fina edo Normal.** Kalitatea zenbat eta handiagoa izan, argazkia orduan eta garbiagoa izango da. Hala ere, fitxategiaren neurria ere handitu egiten da, eta, beraz, telefonoaren memorian argazki gutxiago gorde daitezke.

**Memoria en uso:** argazkiak Memoria del teléfonon edo Memoria externan gorde aukeratu dezakezu.

**Ocultar iconos:** hautatu kameraren doikuntzen ikonoak eskuz edo automatikoki.

**Estabilización de imagen:** kamera mugitu gabe edo dardararik egin gabe argazkiak ateratzeko balio du.







**Auto focus:** fokatze-modua hauta dezakezu. Hautatu: **Punto, Manual edo Detección de cara**.

**Sonido obturador:** obturadorearen lau soinuetako bat hautatzeko.

**Ver cuadrícula:** hauetako bat hauta dezakezu: **Seleccionar, Cuadrícula 2x2 edo Cuadrícula 3x3**.

**Geo-Tagging -** On/ Off

**Reiniciar:** kameraren doikuntza guztiak berrabiarazteko.

**IRADOKIZUNA:** Cámara funtziotik ateratzean, lehenespenez dituen doikuntza guztiak berriro ezarriko dira, irudiaren tamaina eta kalitatea izan ezik. Lehenespenezkoa ez den doikuntza oro berriro ezarri beharko da, adibidez, kolorearen tonua eta ISO balioa. Egiaztatu hurrengo argazkia atera aurretik.

**IRADOKIZUNA:** Doikuntzen menua bisorearen gainean bistaratuko da; horrela, kolore-doikuntzak edo irudiaren kalitatea aldatzean, aldaketak ikusi ahal izango dituzu aurrebista-moduan, doikuntza-menuaren atzean.

## Irudiaren neurria aldatzea

Zenbat eta pixel gehiago izan, fitxategiak are neurri handiagoa izango du (beraz, fitxategiek leku gehiago hartuko dute memorian). Argazki gehiago gorde nahi badituzu, pixel kopurua alda dezakezu, fitxategien tamaina txikitzeko.

1 Bisorean, ukitu goiko ezkerreko aldean.

2 Hautatu **Tamaño de imagen**, Vista previa menuan.

3 Hautatu pixel-balio bat erabilgarri dauden sei aukeren artean: (**5M: 2592x1944,3M: 2048x1536,2M: 1600x1200, 1M: 1280x960,640x480, 320x240**) edo hautatu lehenespenezko balioa:

## Kolore-efektu bat hautatzea

1 Bisorean, ukitu ⚙ goiko ezkerreko aldean.

2 Hautatu **Efecto de color**, Vista previa menuan.

3 Beste sei aukera dituzu kolore-tonurako: Desactivado, Sepia, Mono, Negativo, Relieve

4 Hautatu ondoren, kolore-tonuaren menua itxi dezakezu OK botoia sakatuta. Orain atera dezakezu argazkia.

**IRADOKIZUNA:** Koloretan egindako argazki bat zuri-beltzera edo sepia kolorera alda dezakezu; ez, ordea, zuri-beltzean edo sepian egindakoa koloretara.

## Barneko kamera erabiltzea

LG KM900ek 640x480ko barneko kamera du bideo-deietarako eta argazkiak ateratzeko.

1 Barneko kamerara aldatzeko, ukitu ⚙ eta **Cambiar a- Cámara interna**, Vista previa menuan.

2 Segundo batzuk igaro ondoren, zeure burua ikusiko duzu bisorean. Irudi horren argazkia ateratzeko, sakatu ohi bezala alboko botoia.

**IRADOKIZUNA:** Barneko kamerak doikuntza gutxiago ditu, ez baitu flashik, ez eta ISOrik ere. Hala ere, irudiaren neurria, kolore-efektuak, irudiaren kalitatea, zurien balantzea eta tenporizadorearen doikuntzak alda daitezke ⚙ erabilita, kamera nagusiarekin bezala.

3 Argazkia atera ondoren, kamera nagusiarekin ateratako irudi batekin dituzun aukera berak dituzu.

4 Kamera nagusira itzultzeko, ukitu ⚙ eta hautatu **Cámara exterior**, Vista previa menuan.

## Gordetako argazkiak ikustea

1 Cámara moduan gordetako argazkiak eskuratu ditzakezu. Ukitu 🖼 eta argazki-galeria pantailan bistaratuko da.

## Bideo bat azkar egitea

1 Luze sakatu telefonoaren eskuinean dagoen kamera-tekla.

2 Ukitu eta hautatu **Cambiar a** kamera-moduaren bisorean, bideo-kameraren modura aldatzeko. Menu horretara sar zaitezke zuzenean **Videocámara** ukituta.

3 Kameraren bisorea agertuko da pantailan.

4 Telefonoa horizontalean dela, jarri lentea bideoz grabatu nahi duzunari begira.

5 Grabazioari ekiteko, sakatu bideoa grabatzeko botoia.

6 Bisorearen behealdean, **Grab** eta bideoaren iraupena adierazten duen kontagailu bat agertzen dira.

7 Bideoa eteteko, ukitu ; berriro grabatzen hasteko, hautatu .

8 Ukitu pantailan grabatzen amaitzeko.

## Bideo bat grabatu ondoren

Irudi finko bat agertuko da pantailan, grabatutako bideoarena. Bideoaren izena pantailaren behealdean agertuko da, eta eskuinean lau ikono egongo dira.




**Reproducir** Ukitu ikono hau, bideoa erreproduzitzeko.

**Enviar** Ukitu ikono hau argazkia **mezu gisa**, **mezu elektroniko** gisa edo **Bluetooth** edo **Blogger** bidez bidaltzeko. Kontsultatu informazio gehiago eskuratzeko mezu bat bidaltzeko moduari buruz edo Bluetooth bidez fitxategiak bidaltzeari eta jasotzeari buruz.

**Usar como** Ukitu irudia pantailaren atzealde gisa erabiltzeko.

**Renombrar** Ukitu hautatutako irudiaren izena aldatzeko.

**Editar** Ukitu hainbat tresna erabilita irudia aldatzeko.

Ukitu aurreko menura joateko.

Ukitu ikono hau grabatu berri duzun bideoa ezabatzeko, eta berretsi, **Sí** ukituta. Berriro bisorea agertuko da.

Ukitu ikono hau berehala beste bideo bat grabatzeko. Grabatutako bideoa gorde egingo da.

Ukitu gordetako bideoak eta irudi-galeria ikusteko.

## Bisorea ezagutzea




**Atzera:** ukitu aukera hori hasierako pantailara itzultzeko.

**Hasi grabatzen.**

**Galeria:** ukitu ikono hau galeria ikusteko.

**Esposizioa:** ikus kontrastea doitzea.

**Grabatzeko abiadura**

**Flasharen** egoera: flasha aktibatzeko edo desaktibatzeko.

**Doikuntzak:** ukitu ikono hau doikuntzen menua irekitzeko. Ikus Doikuntza aurreratuak erabiltzea, informazio gehiago eskuratzeko.

**IRADOKIZUNA:** Bisorearen pantaila argiagoa izateko, sarbide azkarreko aukera guztiak itxi ditzakezu. Bisorearen erdialdea behin bakarrik sakatu behar duzu. Aukerak berreskuratzeko, ukitu pantaila berriro.



## Kontrastea doitzea

Kontrasteak irudi baten argitasunaren eta iluntasunaren arteko aldea definitzen du. Kontraste gutxiko irudi bat lausoa izango da; kontraste handikoa, berriz, garbiagoa.

1 Ukitu .
2 Mugitu kontraste-adierazlea barran ikurrerantz, irudi lausoagoa (esposizio gutxiagokoa) lortzeko; edo, bestela, ikurrerantz, irudi garbiagoa (kontraste handiagokoa) lortzeko.

## Konfigurazio aurreratua erabiltzea

Bisorean, ukitu **Ajustes**, konfigurazio aurreratuaren aukerak irekitzeko. Bideokameraren doikuntzak alda ditzakezu gurpila biratuta. Aukera hautatu ondoren, ukitu **OK** botoia.

**Cambiar a:** LG KM900 kameraren barruko kamerara aldatzeko balio du, bideo bat grabatzeko. Ikus **Barruko bideokamera erabiltzea**, informazio gehiago eskuratzeko.

**Tamaño:** bideoaren tamaina aldatzeko, memorian lekua aurreztu dadin. Ikus **Bideo-irudiaren neurria aldatzea** atala **Modo escena:** hautatu hauetako bat: **Auto** edo **Modo noche.**

**Efecto de color:** hautatu kolore-tonu bat, ikuspegi berriari jartzeko. Ikus **Kolore-tonu bat hautatzea** atala.

**Balance de blancos:** bideoetan agertzen diren zuri guztiak errealistak izatea bermatzen du zurien balantzeak. Kamerak zurien balantzea behar bezala doitu dezan, argitasuna definitu beharko duzu. Hautatu **Auto, Incandescente, Soleado, Fluorescente** edo **Nublado.**

**Calidad de vídeo:** hautatu **Súper fina, Fina** edo **Normal.** Zenbat eta kalitate handiagoa, orduan eta argiagoak izango dira bideoak. Kontuan izan fitxategien neurria ere handitu egingo dela; beraz, bideo gutxiago gorde ditzakezu telefonoaren memorian.

**Duración:** bideoen iraupen-muga konfiguratzeko. Hautatu **Normal** edo **MMS**, MMS bat bidaltzeko gehienezko neurria ezartzeko.

**IRADOKIZUNA:** MMS iraupena hautatzean, hautatu irudiaren kalitate txikia, bideo luzeagoa egin ahal izateko.

**Memoria en uso:** bideoak **Memoria del teléfono**n edo **Memoria externa**n gorde aukeratu dezakezu.

**Voz:** hautatu Silencio, bideo bat soinurik gabe grabatzeko.

**Enfoque:** hautatu hauetako bat: **Desactivado/ Micrófono externo / Micrófono interno**

**Ocultar:** hautatu ikonoak kameraren menuan automatikoki edo eskuz ezkutatu nahi dituzun.

**Reiniciar:** bideokameraren doikuntza guztiak berrezartzen ditu.

## Bideo-irudiaren neurria aldatzea

Zenbat eta pixel gehiago izan, fitxategiak are neurri handiagoa izango du (beraz, fitxategiek leku gehiago hartuko dute memorian).

Bideo gehiago gorde nahi badituzu, pixel kopurua alda dezakezu, fitxategien tamaina txikitzeko.

1 Bisorean, ukitu ⚙ goiko ezkerreko aldean.

2 Hautatu **Tamaño de vídeo**, Vista previa menuan.

3 Hautatu pixel-balio bat lau aukera hauen artean: **720X480(D1):** kalitate handiko pantaila panoramikoaren aukera.

   **640x480:** neurri estandarreko VGA.

   **320x240:** irudia txikiagoa da, eta, beraz, baita fitxategia ere. Aukera ezin hobea da memorian espazio gutxi hartzeko.

   **176x144:** irudi-neurririk eta fitxategi-neurririk txikiena da.

4 Ukitu OK botoia bisorera itzultzeko.

**IRADOKIZUNA:** LG KM900 modeloaren edizioko softwarea bateragarria da bideo-mota guztiekin, 720X480 (DI) eta 640x480rekin izan ezik. Gero bideoa editatu nahi baduzu, ez grabatu bi formatu horietan.

**IRADOKIZUNA:** bideo-formatua bihurtzeko software bat duzu KM900 mugikorrarekin datorren CDan.

## Kolore-tonu bat hautatzea

1 Bisorean, ukitu goiko ezkerreko aldean.

2 Hautatu **Efecto de color, Vista previa** menuan.

3 Sei aukera dituzu kolore-tonurako: **Desactivado, Sepia, Mono, Negativo, Relieve** eta **Solarizar.**

4 Ukitu erabili nahi duzun kolore-tonua.

**IRADOKIZUNA:** Koloretan egindako bideo bat zuri-beltzera edo sepia kolorera alda dezakezu; ez, ordea, zuri-beltzean edo sepian egindakoa koloretara.

## Barneko bideokamera erabiltzea

LG KM900ek 320x240ko barneko kamera du bideo-deietarako eta bideoak grabatzeko.

1 Barneko kamerara aldatzeko, ukitu **eta Cambiar a- Cámara interna**, Vista previa menuan.

2 Segundo batzuk igaro ondoren, zeure burua ikusiko duzu bisorean. Irudia grabatzeko hasteko, sakatu ohi bezala argazkiak ateratzeko botoia, eta sakatu berriro grabazioa amaitzeko.

3 Bideoa grabatu ondoren, kamera nagusiarekin grabatutako bideoarekin dituzun aukera berak dituzu.

4 Kamera nagusira itzultzeko, ukitu eta **Cámara externa**.

**IRADOKIZUNA:** irudiaren neurria eta kalitatea, kolore-efektuak eta zurien balantzea alda ditzakezu **Ajustes** erabilita, kamera nagusia erabilita bezalaxe.

## Gordetako bideoak ikustea

1 Bisorean, ukitu .

2 Pantailan galeria bistaratuko da.

3 Ukitu bideoa behin galeriaren lehen planora ekartzeko. Automatikoki erreproduzitzen hasiko da.

## Bideoak telebistan ikustea

Konektatu KM900 telebistara, TBrako irteera-kablearekin.

**OHARRA:** TBaren irteera-kablea bereiz saltzen da.

**IRADOKIZUNA:** 320x240 eta 176x144 izan ezik, formatu guztiak bateragarriak dira TB baten bideoa erreproduzitzeko.

## Argazkiak eta bideoak ikustea

1 Ukitu kameraren aurrebistaren pantailan.

2 Pantailan galeria bistaratuko da.

3 Ukitu bideoa edo argazkia pantaila osoan irekitzeko.




**IRADOKIZUNA:** mugitu ezkerrera edo eskuinera, beste argazki edo bideo batzuk ikusteko.

**IRADOKIZUNA:** argazki edo bideo bat ezabatzeko, ireki eta hautatu . Hautatu **Sí** berresteko.

## Zooma erabiltzea argazki bat ikustean

Argazkiak ikustean, irudia hurbildu eta urrundu dezakezu, atzamarrak pantailan elkartuta edo urrunduta.




## Bolumena doitzea bideo bat ikustean

Bideo bat erreproduzitzen ari dela bolumena doitzeko, ukitu pantailaren ezkerraldeko bolumen-barra. Telefonoaren alboko bolumen-teklen bidez ere egin dezakezu hori.

## Argazki bat ezartzea pantailaren atzeko plano gisa

1 Ukitu pantailaren hondo gisa ezarri nahi duzun argazkia, irekitzeko.

2 Ukitu pantaila aukera-menua irekitzeko.

3 Ukitu Usar como .

4 Pantaila argazki-modura pasatuko da. Argazkiaren eremu moztua handitu edo murriztu eta mugitu dezakezu pantailaren behealdeko miniaturaren bidez.

## Argazkiak editatzea

Aukera asko dituzu argazkiak aldatzeko, hobetzeko edo animatzeko.

1 Ireki aldatu nahi duzun argazkia, eta ukitu Editar aukerak erakusteko.

2 Ukitu ikono hauek argazkia aldatzeko:

Argazkia mozteko. Hautatu argazkia lauki-forman edo biribilean moztu nahi duzun, eta mugitu behatza pantailan, eremua hautatzeko.

Esku hutsez marrazteko eta linearen lodiera hautatzeko, lau aukeren bidez, eta erabili nahi duzun kolorea aukeratzeko.

Argazki bati testua gehitzeko. Ikus **Argazki bati testua gehitzea atala**.

Argazkia zigiluekin apaintzeko. Hautatu zigiluetako bat, eta hautatu argazkiaren zer lekutan gehitu nahi duzun zigilu bat.

Argazkian egindako aldaketak gordetzeko balio du. Erabiliko duzun ezabagailuaren tamaina hauta dezakezu.

Ukitu ikono hau galeriara itzultzeko.

*(...)* Argazkian egindako aldaketak gordetzeko. Hautatu aldaketak nola gorde nahi dituzun: **Actualizar existente** edo **Nuevo archivo. Nuevo archivo** hautatzen baduzu, sartu fitxategi-izena.

**Guardar** Argazkiko azken **efektua** edo aldaketa desegiteko balio du.

**Imagen** Ukitu aukera hau beste efektu-aukera batzuk irekitzeko, *(***Rotar** barne*)*. Beste edizio-aukera aurreratu batzuk ere badaude. Ikus **Kolore-puntu bat gehitzea** eta **Argazki baten kolorea aldatzea** atalak.

**Filtro** Ikus **Argazki bati efektua gehitzea.**

**Ajuste** Argazki batean doikuntzak egin ditzakezu kolorea, distira automatikoa eta abar erabilita.



## Argazki bati testua gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu T.
2 Hautatu **Texto** markorik gabe testu bat gehitzeko, edo hautatu bunbuilo-formako aukera bat.
3 Idatzi testua teklatuarekin eta sakatu **Guardar**.
4 Mugitu testua ukitu eta nahi duzun lekura lerratuta.




## Argazki bati efektua gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu **Filtro** .
2 Argazkiari aplikatzeko hemezortzi aukera hauek dituzu:
3 Efektu bat desegiteko, ukitu **Deshacer**.

## Argazki bat moztea

1 Edizio-pantailan, ukitu .
2 Hautatu argazkia zer formatan moztu nahi duzun.
3 Arrastatu laukitxoa moztu nahi duzun eremura.
4 Nahi duzun elementuak hautatu ondoren, ukitu **Guardar**.

01
02
03
04
05
06
07
08

## Argazki bati kolore-puntu bat gehitzea

1 Edizio-pantailan, ukitu Imagen .
2 Hautatu **Acento de color**.
3 Hautatu argazkiaren zati bat. Kolore bera edo antzekoa duten eremu horretarako elementu guztien inguruan lerro bat agertuko da, adibidez, pertsonaren ilea edo pertsonaren kamiseta.
4 Aldatu efektuaren intentsitatea Intensidad ukituta edo “+” o “-“ botoia sakatuta.
5 Ukitu **OK**.
6 Argazkiaren kolore guztiak ezabatuko dira, kolorea nabarmentzeko markatutako eremua izan ezik.
7 Sakatu Guardar. aldaketak gordetzeko.

## Argazki baten koloreak txandakatzea

1 Edizio-pantailan, ukitu Imagen .
2 Hautatu **Alternancia de color**.
3 Hautatu argazkiaren zati bat. Kolore bera edo antzekoa dagoen eremua marra batez inguratua agertuko da.

   Adibidez, ilearen edo kamisetaren inguruan.
4 Hautatu kolore bat.
5 Sakatu **OK**.
6 Hautatutako kolorea aplikatuko zaio kolorea aldatu nahi diozun argazki-zatiari.
7 Sakatu Guardar. aldaketak gordetzeko.

## Bideoak editatzea

Edizio-funtzioak eskuragarri daude MPEG4 motetarako, 720X480rako (DI) izan ezik. Gero bideoa editatu nahi baduzu, ez grabatu formatu horietan.

**OHARRA:** baliteke fitxategia editatzerik ez izatea, bit-en abiaduraren arabera.

## Bideoaren iraupena laburtzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ☰ aukera-tekla.
2 Hautatu Editar eta hautatu **Recortar/ Recorte múltiple.**
3 Ukitu ▶ eta definitu hasiera- nahiz amaiera-puntu berriak, Recortar ikonoarekin.
4 Ukitu Vista previa, mozketa berria gustuko duzula egiaztatzeko.
5 Ukitu Guardar edo ⮌ , galeriara itzuli eta aldaketak ezabatzeko.




## Bi bideo bateratzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ☰ aukera-tekla.
2 Hautatu Editar eta aukeratu **Fusión de vídeo**.
3 Mis vídeos karpeta irekiko du. Hautatu elkartu nahi duzun bideoa.
4 Ukitu argazkia eta lerratu bideoaren amaiera edo hasieraraino.

01 02 03 04 05 06 07 08

5 Ukitu **Vista previa** bideoak nola elkartu hautatzeko.



6 Sakatu **Guardar** eta **Nuevo archivo** elkartutako bideo berria gordetzeko. Ordeztu lehendik dagoen fitxategia edo gorde fitxategi berri gisa.

7 Jarraitu urrats horiek beste bideo batzuk bateratzeko ere.

## Argazki bat eta bideo bat bateratzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ≡ aukera-tekla.

2 Hautatu Editar eta aukeratu **Fusión de imagen**.

3 Mis imágenes karpeta irekiko du. Ukitu bideora eraman nahi duzun argazkia, eta ukitu **Seleccionar**.

4 Ukitu argazkia eta lerratu bideoaren amaiera edo hasieraraino.

5 Ukitu **Vista previa**, argazkia eta bideoa elkartzeko modua hautatzeko.

6 Sakatu **Guardar**, eta hautatu lehendik dagoen fitxategia ordeztu nahi duzun edo fitxategi berri gisa gorde nahi duzun.

7 Jarraitu urrats horiek beste argazki batzuk bateratzeko ere.

## Bideo bati testua gehitzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ≡ aukera-tekla.

2 Hautatu Editar eta aukeratu **Superposición de texto**.

3 Ukitu ▶ eta esan testua non jarri nahi duzun.

4 Ukitu Inicio, eta hautatu testu-estiloak. Idatzi testua teklatuarekin eta sakatu **OK**.

5 Ukitu testua bistaratu dadin nahi duzun pantailako eremua, eta, gero, **OK**.




6 Ukitu **Guardar**. Ordeztu lehendik dagoen fitxategia edo gorde fitxategi berri gisa.

7 Jarraitu urrats horiek testua gehitzeko ere.

## Argazki bat gainjartzea

1 Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ≡ aukera-tekla.

2 Hautatu Editar eta aukeratu **Superposición de imagen**.

3 Mis imágenes karpeta irekiko du. Hautatu bideoan gainjarri nahi duzun argazkia.

4 Ukitu ▶ eta esan irudia non ager dadin nahi duzun; erabili **Opaco**.

5 Ukitu testua bistaratu dadin nahi duzun pantailako eremua. Argazkia handiegia bada, pantaila osoari gainjarriko zaio, ez hautatutako eremuari bakarrik.

6 Ukitu **Guardar**. Ordeztu lehendik dagoen fitxategia edo gorde fitxategi berri gisa.

7 Jarraitu urrats horiek argazki gehiago gehitzeko ere.

## Bideoari soinu-banda gehitzea

1. Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ☰ aukera-tekla.
2. Hautatu **Editar** eta aukeratu **Doblaje de audio**.
3. Mis sonidos karpeta irekiko du. Hautatu zer pista gehitu nahi duzun bideora.
4. Bideoaren jatorrizko audio-pista ezabatuko da.
5. Audioa bideoa baino laburragoa bada, hautatu zenbat aldiz erreproduzitu nahi duzun: **Una vez** edo **Repetir**.
6. Ordeztu lehendik dagoen fitxategia edo gorde fitxategi berri gisa.

## Bideoari zuzeneko soinua gehitzea

1. Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ☰ aukera-tekla.
2. Ukitu **Editar**, eta, gero, **Directo**.
3. Definitu soinuaren balioa: Sonido original edo Grabación.




## Bideoaren abiadura aldatzea

1. Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ☰ aukera-tekla.
2. Hautatu **Editar**, eta hautatu **Escala temporal**.
3. Hautatu aukeretako bat. Hori aldatu egin daiteke fotogramen abiaduraren arabera.
4. Ordeztu jatorrizko fitxategia edo gorde fitxategi berri gisa.

## Argitasuna murrizteko efektu bat gehitzea

1. Ireki editatu nahi duzun bideoa, hautatu || eta ukitu ☰ aukera-tekla.
2. Hautatu **Editar** eta aukeratu **Oscurecimiento**.
3. Ordeztu jatorrizko fitxategia edo gorde fitxategi berri gisa.
4. Orain, bideoa moteldua agertuko da hasieran eta amaieran.

Telefonoaren memorian edozein multimedia-fitxategi gorde dezakezu, irudi, soinu, bideo eta joko guztietara erraz sartzeko. Fitxategiak memoria-txartel batean ere gorde ditzakezu. Memoria-txartela erabilita, da telefonoaren memoriako espazioa hustu dezakezu.

Multimedia menura sartzeko, ukitu , eta hautatu **Mis cosas**, Multimedia fitxan. Karpeta-zerrenda bat ireki dezakezu multimedia-fitxategi guztiak biltegiratzeko.

**IRADOKIZUNA:** Mis cosas karpetako fitxategiak ezabatzeko, ukitu eta **Eliminar**.

## Irudiak deskargatzea

**Mis imágenes** atalak irudi-zerrenda bat du; besteak beste, hauek sartzen dira: telefonoan aurrez kargatutakoak, erabiltzaileak deskargatutakoak eta telefonoaren kamerarekin hartutakoak.

## Menú de opciones de Mis imágenes

**Mis imágenes**-en eskuragarri dauden aukerak hautatutako irudi-motaren araberakoak dira. Telefonoaren kamerarekin egindako irudientzat aukera guztiak daude eskuragarri; aurrez ezarritako irudientzat, berriz, **Establecer favoritos. Ordenar por. Modo diapositivas** eta **Administrador de memoria** soilik.





## Argazki bat bidaltzea

1 Argazki bat bidaltzeko, hautatu nahi duzun irudia.

2 Sakatu **Enviar**. Hautatu bat: **Mensaje, Email, Bluetooth** edo **Usuario de blog**.

3 **Mensaje** edo **Email** hautatuz gero, argazkia mezu bat atxikiko zaio, eta ohiko moduan idatzi eta bidali ahal izango duzu. **Bluetooth** hautatzen baduzu, telefonoak argazkia bidaltzeko gailu bat bilatuko du.

## Irudi bat erabiltzea

Horma-paper eta pantaila-babesle gisa erabili nahi dituzun irudiak hauta ditzakezu, bai eta kontaktu bat identifikatzeko ere.

1 Ukitu eta hautatu **Mis cosas** Multimedia fitxan.

2 Ukitu **Mis imágenes**.

3 Hautatu irudi bat eta ukitu

4 Ukitu **Usar como**, eta hautatu aukeretako bat:

**Fondo de pantalla:** hasierako pantailarako atzealdea definitzeko balio du.

**Contactos:** zerrendako kontaktuetako batek deitzen dizunean agertzeko irudi bat esleitzeko balio du.

**Imagen de inicio:** telefonoa piztean agertzeko irudi bat ezartzeko balio du.

**Imagen de apagado:** telefonoa itzaltzean agertzeko irudi bat ezartzeko balio du.

**Imagen de la llamada saliente:** dei bat egitean agertuko den irudia definitzeko balio du.

**Imagen de la llamada entrante:** definitu zer dei agertuko den sarrerako deietan.

01 02 03 04 05 06 07 08

## Irudi bat inprimatzea

**1** Ukitu eta hautatu **Mis cosas** Multimedia fitxan.

**2** Ukitu **Mis imágenes**.

**3** Hautatu irudi bat eta ukitu .

**4** Ukitu **Imprimir**, eta hautatu **Bluetooth** edo **PictBridge**.

### Irudi bat mugitzea edo kopiatzea

Irudi bat telefonoaren memoriatik memoria-txartel batera eraman edo han kopia dezakezu. Baliteke hori egin behar izatea espazioa husteko edo segurtasun-kopiak egiteko.

**1** Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.

**2** Ukitu **Mis imágenes.**

**3** Ukitu .

**4** Hautatu **Mover** edo **Copiar.**

## Diapositiba-aurkezpen bat sortzea

Telefonoko irudi guztiak ikusi edo arakatu nahi badituzu, diapositiba-aurkezpen bat sor dezakezu, irudi guztiak itxi eta ireki beharrik ez izateko.

**1** Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.

**2** Ukitu **Mis imágenes.**

**3** Ukitu eta **Modo diapositivas.**

## Etiketa geografikoak jartzea

Piztu kamera eta gozatu telefonoak eskaintzen dizkizun kokapenean oinarritutako zerbitzuez.

Atera argazkiak edozein lekutan, eta jarri lekuaren etiketa. Argazkiak etiketa geografikoekin bateragarria den blog batera igotzen badituzu, mapan ikusiko dituzu irudi horiek.



## Memoriaren egoera egiaztatzea

Zenbat memoria erabili duzun eta zenbat gelditzen zaizun ikusteko balio du.

**1** Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.

**2** Ukitu **Mis imágenes.**

**3** Ukitu eta, gero, **Memoria**.

## Soinuak

**Mis sonidos** karpetan deskargatutako soinuak, aurrez ezarritako **soinuak eta ahots-grabazioak** daude. Hortik soinuak administratu, bidali edo dei-tonu gisa ezar ditzakezu.

## Soinu bat erabiltzea

**1** Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.

**2** Ukitu **Mis sonidos.**

**3** Hautatu **Sonidos predeterminados** edo **Descargar sonido.**

**4** Hautatu soinu bat, eta ukitu erreproduzitzeko ikonoa. Erreproduzitzen hasiko da.

**5** Soinua hainbat tonutan erabil dezakezu, **Usar como** menua hautatuta.

**6** Hautatu bat: **Tono de llamada, Tono de videollamada** edo **Tono de mensaje.**

## Bideoak

**Mis vídeos** karpetan, telefonoarekin deskargatutako eta grabatutako bideoen zerrenda agertzen da.

Bideo bat ikustea

1 Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.
2 Ukitu **Mis vídeos.**
3 Hautatu erreproduzitu nahi duzun bideoa.

**IRADOKIZUNA:** KM900 bateragarria da DivX eta Xvid bideo-formatuekin; hala, eduki gehiago dituzu eskuragarri.

**OHARRA:** TBaren irteera-kablea bereiz saltzen da.

## Bideoklip bat bidaltzea

1 Hautatu bideo bat eta ukitu
2 Ukitu **Enviar,** eta hautatu **Mensaje, Email, Bluetooth** edo **YouTube.**
3 **Mensaje** edo **Email** hautatzen baduzu, bideoklipa gehituko zaio mezuari, eta ohi bezala idatzi eta bidali ahal izango duzu. **Bluetooth** hautatzen baduzu, telefonoak bideoa bidaltzeko gailu bat bilatuko du. Bideoa youtubera ere igo dezakezu.

## Jokoak eta aplikazioak

Joko eta aplikazio berriak deskarga ditzakezu zure telefonora, zure aisialdian ondo pasatzeko.

## Joko batean aritzea

1 Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.
2 Ukitu **Juegos** edo **Aplicaciones** menua.
3 Sakatu **Iniciar** botoia joko bat edo aplikazio bat hasteko.

## Aukeren menua erabiltzea

**Juegos** eta **Aplicaciones** karpetetan, aukera hauek dituzu:

- **Nueva carpeta: Juegos**-en edo **Aplicaciones**-en karpeta berri bat sortzeko aukera ematen du.
- **Ordenar por:** jokoak eta aplikazioak dataren, tamainaren, izenaren edo memoriaren arabera ordenatzeko.
- **Administrador de memoria:** telefonoaren memoriaren edo kanpoko memoriaren egoera ikusteko balio du.

## Jokoak eta Java aplikazioa instalatzea

1 Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.
2 Memoria-txartel berri bat sartu baduzu, ukitu **Memoria externa** menua.
3 Hautatu instalatu nahi duzun fitxategia (*.jad edo *.jar), eta sakatu **Instalar**.

## M-Toy menua erabiltzea

M-Yoyn, mugimendu-sentsore integratua erabiltzen duten jokoak daude.

## Flash edukiak

**Contenidos Flash** karpetan, lehenespenezko fitxategi guztiak eta deskargatutako SWF fitxategiak daude.

## SWF/SVG fitxategi bat ikustea

1 Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.
2 Ukitu **Flash.**
3 Aukeratu ikusi nahi duzun fitxategia.

## Dokumentuak

**Mis cosas**-eko **Documentos** atalean ikus ditzakezu dokumentu-fitxategi guztiak.

Handik, Excel, PowerPoint, Word, texto eta PDF fitxategiak ikus ditzakezu.

## Fitxategi bat ikustea

1 Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.

2 Ukitu **Documentos**.

3 Hautatu dokumentu bat, eta ukitu **Ver**.

## Telefonora fitxategi bat transferitzea

Ziur asko fitxategi bat ordenagailutik telefonora transferitzeko teknologiari erosoena da Bluetooth. Halaber, LG PC Suite sinkronizazio-kablearekin erabil dezakezu.

Bluetootharekin musika transferitzeko:

1 Egiaztatu telefonoak eta ordenagailuak Bluetootha aktibatuta dutela eta bata bestearen irismenean daudela.

2 Erabili ordenagailua, fitxategia Bluetooth bidez bidaltzeko.

3 Fitxategia bidalitakoan, telefonoan onartu behar duzu, **Sí** sakatuz.

4 Fitxategiak **Documentos** edo **Otros** karpetan agertu behar luke.

## Beste zenbait

Irudiak, audio-fitxategiak, bideoak, jokoak nahiz aplikazioak ez diren fitxategiak gordetzeko erabiltzen da **Otros** karpeta. **Documentos** karpeta bezalaxe erabiltzen da. Ordenagailutik telefonora fitxategiak transferitzean, baliteke **Otros** karpetan agertzea, **Documentos** karpetan agertu beharrean.

Hala gertatu bada, lekuz alda ditzakezu.

**Otros** karpetatik **Documentos** karpetara fitxategiak eramateko:

1 Ukitu eta hautatu **Mis cosas Multimedia** fitxan.

2 Ukitu **Otros**.

3 Hautatu fitxategia eta ukitu .

4 Ukitu **Mover**, eta, berriro, **Mover.**

## Film bat sortzea

1 Ukitu eta hautatu **Movie maker Multimedia** fitxan.

2 Ukitu **Insertar**, irudi bat gehitzeko.

3 Ukitu goiko aldean dagoen **Estilo** fitxa, film-mota bat hautatzeko.

4 Ukitu **Sonido** fitxa, pantailan, soinua aldatzeko, adibidez, ahots-grabazio baterako.

5 Ukitu **Vista previa** botoia, emaitzak ikusteko.

6 Ukitu **Orden de reproducción** fitxa, pantailan, ordena aldatzeko.

7 Ukitu **Guardado en** fitxa, pantailan, filma non gorde nahi duzun hautatzeko, eta ukitu **Uso** fitxa, gordetzea edo MMSa hautatzeko.

8 Filma gordetzeko, ukitu **Abrir** eta **Guardar vídeo.**




## Musika

LG KM900ek musika-erreproduzitzaile integratua du, zure gustuko abesti guztiak entzun ditzazun. Musika-erreproduzitzailera sartzeko, ukitu eta hautatu **Música**, Multimedia fitxan. Hortik hainbat karpetatara sar zaitezke:

**Todas las pistas:** telefonoaren abesti guztiak ditu.

**Favoritos:** gogoko gisa gordetako abestiak ditu.

**Artistas:** artistaren arabera bilduman mugitzeko aukera ematen du.

**Álbumes:** albumaren arabera bilduman mugitzeko aukera ematen du.

**Géneros:** generoaren arabera bilduman mugitzeko aukera ematen du.

## Telefonora musika transferitzea

Telefonora musika transferitzeko modurik errazenak Bluetootha eta sinkronizazio-kablea dira.

LG PC Suite ere erabil dezakezu. Bluetootharekin musika transferitzeko:

1 Egiaztatuta Bluetootha aktibo dagoela bi gailuetan, eta elkarri lotuta daudela.

2 Hautatu musika-fitxategi bat beste gailuan, eta bidali Bluetooth bidez.

3 Fitxategia bidalitakoan, telefonoan onartu behar duzu, **Sí** sakatuz.

4 Fitxategiak hemen agertu behar luke: **Música > Todas las pistas.**

## Abesti bat erreproduzitzea

1 Ukitu eta hautatu **Música** Multimedia fitxan.

2 Ukitu **Todas las pistas**.

3 Hautatu erreproduzitu nahi duzun abestia, eta ukitu .

4 Ukitu , abestia gelditzeko.

5 Ukitu , hurrengo abestira joateko.

6 Hautatu , aurreko abestira joateko.

7 Ukitu , **Música** menura joateko.

**IRADOKIZUNA:** musikarako Dolby Mobile eskaintzen duen munduko lehen telefonoa da KM900. Zure telefono mugikorrari Dolby soinu-kalitatea ematen dio.

**IRADOKIZUNA:** musika entzuten ari zarela bolumena aldatzeko, ukitu .

## Erreprodukzio-zerrenda bat sortzea

Erreprodukzio-zerrendak sor ditzakezu, **Todas las pistas** karpetatik abesti-sorta bat hautatuz.

1 Ukitu eta hautatu **Música** Multimedia fitxan.

2 Ukitu aukera-ikonoa.

3 Ukitu **Nueva lista reproducción**, idatzi erreprodukzio-zerrendaren izena, eta ukitu .

4 Todas las pistas karpeta agertuko da. Ukitu erreprodukzio-zerrendan gorde nahi dituzun abesti guztiak; izenen ondoan egiaztatze-marka agertuko da.

5 Ukitu **Añadir canciones**.

Erreprodukzio-zerrenda bat erreproduzitzeko, hautatu, eta ukitu Reproducir.

**OHARRA:** beste erreprodukzio-zerrenda bat gehitzeko, ukitu eta Nueva lista reproducción.

## Erreprodukzio-zerrenda bat ezabatzea

1 Ukitu eta hautatu **Música** Multimedia fitxan.

2 Ukitu aukera-ikonoa.

3 Ukitu **Eliminar** edo **Eliminar todo**, erreprodukzio-zerrenda guztiak ezabatzeko.

## Irratia erabiltzea

LG KM900 telefonoak FM irrati integratua du, zure kate gogokoenak sintonizatu eta edozein lekutan entzun ditzazun.

**OHARRA:** irratia entzuteko, entzungailuak konektatu behar dituzu. Konektatu entzungailuen hartunean. Erabili telefonoaren ezkerraldean dagoen 3,5 mm-ko larakoa.




## Irrati-kateak bilatzea

Telefonoan kateak sintoniza ditzakezu, eskuz edo automatikoki bilatuta. Berariazko kanal-zenbakietan gordeko dira, berriro sintonizatu behar ez izateko. 30 irrati-kanal ere gorde ditzakezu.

**Automatikoki sintonizatzea**

1. Ukitu eta hautatu **Radio FM** Multimedia fitxan.
2. Ukitu .
3. Sakatu **Exploración automática** eta, ondoren, **Sí**. Aurkitutako kateak telefonoko kanal-zenbakiei esleituko zaizkie telefonoan, **Definir, Saltar** eta **Parar** hautatuta.

   **OHARRA:** eskuz ere sintoniza ditzakezu kanalak, irrati-frekuentziaren alboan agertzen den gurpila erabilita.

## Kateak berrezartzea

1. Ukitu eta hautatu **Radio FM** Multimedia fitxan.
2. Ukitu .
3. Hautatu **Reiniciar** aukeratutako kanala berrezartzeko, edo **Restablecer todo** kanal guztiak berrezartzeko. Kanal guztiak berrabiarazten badituzu, guztiak hasierako frekuentziara itzuliko dira: 87.5Mhz.

## Irratia entzutea

1. Ukitu eta hautatu **Radio FM** Multimedia fitxan.
2. Hautatu entzun nahi duzun irrati-kanalaren zenbakia.

**IRADOKIZUNA:** Seinalea hobeto hartzeko, luzatu entzungailuen kablea, irrati-antena baten modukoa baita.

**Oharra** Telefonoarentzat espresuki egina ez den entzungailu bat konektatzen baduzu, baliteke irrati-seinalea ondo ez hartzea.

## FM transmisorea erabiltzea musika erreproduzitzeko

KM900ek FM frekuentzia transmiti dezake musika-erreproduzitzailearen modulutik, musika erreproduzitzeko. Beraz, FM frekuentzia batean entzun dezakezu musika, musika-erreproduzitzailea erabili beharrean.

## Egutegian gertaera bat gehitzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Organizador** aukerara, **Utilidades** fitxan. Aukeratu **Calendario**.

2 Aukeratu gertaera gehitu nahi duzun data.

3 Ukitu eta **Nuevo plan.**

4 Ukitu **Categoría,** eta, ondoren, hautatu **Cita, Aniversario** edo **Cumpleaños.** Egiaztatu data, eta zehaztu zer ordutan nahi duzun gertaera hastea.

5 Hitzorduetarako eta urteurrenetarako, idatz gertaeraren hasiera- eta amaiera-orduak, beheko orduaren eta dataren koadroetan.

6 Ekitaldiari gaia edo oharra gehitu nahi badiozu, hautatu **Asunto,** eta idatzi xehetasunak.

7 Hautatu **Definir alarma,** ekitaldirako ohar bat ezartzeko. Alarma errepikatu nahi baduzu, hautatu **Definir repetición.**

8 Sakatu ekitaldia egutegian gordetzeko. Kolorezko koadro batek adierazten du zer egunetan gorde diren ekitaldiak. Alarma batek joko du ekitaldiaren hasiera-orduan, ekitaldirik galdu ez dezazun.

**IRADOKIZUNA:** Oporren datak jar ditzakezu egutegian. Ukitu opor-egun bakoitza, eta, ondoren , eta hautatu **Definir vacaciones.** Egun bakoitza gorriz nabarmenduko da.

## Egutegiaren ikuspegi lehenetsia aldatzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Organizador** aukerara, **Utilidades** fitxan. Hautatu **Ajustes,** aukeran.

2 Ukitu **Vista predeterminada**, eta hautatu **Calendario**, **Semana**, **Planificación**, **Lista** edo **Todas las tareas**.

## Zeregin-zerrendari elementu bat gehitzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Organizador** aukerara, **Utilidades** fitxan.

2 Ukitu , eta **Tarea nueva,** eta, ondoren, ukitu **Nota**.

3 Zehaztu zereginaren data, gehitu oharrak eta hautatu lehentasun-maila: **Alto, Medio** edo **Bajo.**

4 Gorde hautatutako zeregina .

**IRADOKIZUNA:** Segurtasun-kopiak egin ditzakezu, baita egutegia zure ordenagailuarekin sinkronizatu ere. Ikus PC Sync atala.

## Buscador fechas tresna erabiltzea

Data-bilatzailea tresna baliagarria da, egun-kopuru jakin baten buruan zein data dagoen kalkulatzeko. Adibidez, 2009/10/10etik 60 egunera, 2009/12/09 izango da.

Hala, epeak kontrola ditzakezu.

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Organizador** aukerara, **Utilidades** fitxan.

2 Aukeren menuan, hautatu **Buscador de fechas.**

3 Definitu data **Desde** fitxan.

4 **Después** fitxan, zehaztu egun-kopurua.

5 **Fecha límite** *(muga-data)* beherago azalduko da.

## Alarma bat ezartzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Alarmas** aukerara, Utilidades fitxan.

2 Alarma berri bat gehitu nahi baduzu, ukitu **Nueva alarma**. Ordubete igarotzean berriro soinu-alarma ezarri nahi baduzu, ukitu **Alarma rápida**.

3 Definitu alarmak zer ordutan jotzea nahi duzun.

4 Hautatu alarma errepikatzea nahi duzun, eta definitu errepikatzeko modua.

5 Ikonoek aukeratutako asteguna adierazten dute.

5 Hautatu **Sonido/Vibración** zer alarma-mota nahi duzun hautatzeko.

6 Ukitu **Timbre de alarma**, eta, ondoren, hautatu tonua. Soinuak entzuteko, ukitu soinu hori, eta, ondoren, .

7 Erantsi ohar bat alarmari.

8 Alarma desaktiba dezakezu Repetir edo Parar hautatuta.

## Ohar bat gehitzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Notas** aukerara, Utilidades fitxan.

2 Ukitu **Nueva nota**.

3 Idatzi oharra eta ukitu .

**IRADOKIZUNA:** Ohar bat edita dezakezu. Hautatu ohar bat aldatzeko, ukitu **Editar**, eta sartu aldaketak.

## Ahots-grabagailua

Erabili ahots-grabagailua, ahots- edo bestelako soinu-fitxategiak grabatzeko.





## Soinua edo ahotsa grabatzea

1 Ukitu .

2 Ukitu **Grabadora de voz**, Utilidades fitxan.

3 Sakatu **Reproducir** grabatzen hasteko.

4 Ukitu **Parar** amaitzeko.




5 Berriro grabatu nahi baduzu, ukitu **Nuevo**.

## Ahots-grabazioa bidaltzea

1 Grabazioa amaitzean, ukitu **Enviar**.

2 Hautatu **Mensaje, Email** edo **Bluetooth. Mensaje** edo **Email** hautatzen baduzu, grabazioa mezuari erantsiko zaio, eta ohi bezala idatzi eta bidali ahal izango duzu. **Bluetooth** hautatzen baduzu, telefonoak grabazioa bidaltzeko gailu bat bilatuko du.

## Kalkulagailua erabiltzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Calculadora** aukerara, Utilidades fitxan.

2 Ukitu zenbaki-teklak, zenbakiak sartzeko.

3 Kalkulu sinpleak egiteko, ukitu behar duzun funtzioa *(+, –, *, /)*, eta, ondoren, =.

4 Kalkulu konplexuagoak egiteko, ukitu eta hautatu **sin, eos, tan, deg, log, etab.**.

# Antolatzailea

## Unitate bat bihurtzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Extras** aukerara, Utilidades fitxan.
2 Hautatu Conversor unidades.
3 Hautatu Moneda**, Área, Longitud, Peso, Temperatura, Volumen** edo **Velocidad** bihurtu nahi duzun.
4 Gero, hautatu unitatea, eta adierazi zer balio bihurtu nahi duzun.
5 Dagokion balioa pantailan agertuko da.

## Kronometroa

1 Hasierako pantailan, ukitu , eta, gero, ukitu **Utilidades**.
2 Hautatu **Cronómetro**.
3 Ukitu **Inicio**, tenporizadorea abiarazteko.
4 Ukitu **Vuelta**, bira baten denbora gordetzeko.
5 Ukitu **Parar**, tenporizadorea geldiarazteko.
6 Ukitu **Reiniciar**, berriro kronometratzen hasteko.

## Munduko erlojuari hiri bat gehitzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Reloj mundial** aukerara, Utilidades fitxan.
2 Ukitu ikonoa, eta, gero, **Añadir ciudad**. Hasi aurkitu nahi duzun hiriaren izena idazten, eta pantailan agertuko da.
3 Ukitu hiriaren izena, hautatzeko. Munduko erlojuaren zerrendari gehituko zaio.





# PC Sync

PCa telefonoarekin sinkroniza dezakezu. Hala, informazio garrantzitsu guztia eta data guztiak bat datozela bermatuko duzu. Segurtasun-kopia eroso gisa ere erabili ahal izango duzu.

**IRADOKIZUNA**: Horretarako, instalatu CD-ROMean dagoen PC Suite aplikazioa, edo deskargatu helbide honetatik: http://update. lgmobile. com. (www.lgmobile. com Productos > ManualS Software > Ir a la sección de Manual y Descarga de software)

## LG PC Suite ordenagailuan instalatzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Conectividad** aukerara, Ajustes fitxan.
2 Ukitu **Modo** de **conexión USB.**
3 Konektatu gailua ordenagailura USB kablea erabilita, eta itxaron pixka bat.
4 Instalazio-gidaren mezua agertuko da.

**Kontuz** Instalazio-gidaren mezua zure PCan agertzen ez bada, egiaztatu CD-ROM unitatearen doikuntzak Windowsen.

5 Sartu CDa edo egin klik botoiari LG PC Suite zuzenean saretik ordenagailura deskargatzeko.
6 Sakatu pantailan agertuko den LG PC Suite Installer aplikazioan.

## Telefonoa eta PCa konektatzea

1 Hautatu PC Suite modua Conectividad menuan, eta, ondoren, konektatu USB kablea telefonora eta PCra.
2 LG PC Suite automatikoki aktibatuko da PCan.

**Kontuz** LG PC Suite zure ordenagailuan automatikoki aktibatzen ez bada, egiaztatu CD-ROM unitatearen doikuntzak zure ordenagailuan.

3 Telefonoa eta PCa konektatuta egongo dira.

## Telefonoko datuen segurtasun-kopiak eta haiek leheneratzea

1 Konektatu telefonoa PCra, lehen deskribatu bezala.

2 Sakatu **Copia de seguridad**-en ikonoa, eta **hautatu Copia de seguridad** edo **Restaurar**.

3 Hautatu zeren segurtasun-kopia egin nahi duzun: **datos de Contenido** edo **datos de Agenda/ Calendario/Tareas/ Notas**. Hautatu zer kokalekutan gorde nahi duzun informazioaren segurtasun-kopia edo informazioa nondik berreskuratu nahi duzun. Sakatu **OK**.

4 Informazioaren segurtasun-kopia bat egingo da.

## Telefonoaren fitxategiak ikustea PCan

1 Konektatu telefonoa PCra, lehen deskribatu bezala.

2 Sakatu **Contenido**-ren ikonoa.

3 Telefonoan gorde dituzun dokumentu, Flash eduki, irudi, audio-fitxategi eta bideo guztiak pantailan bistaratuko dira, LG Phone karpetan.

**IRADOKIZUNA:** telefonoaren edukiak PCan bistaratzea lagungarria da fitxategiak eta dokumentuak antolatzeko eta behar ez duzun edukia kentzeko.



## Kontaktuak sinkronizatzea

1 Konektatu telefonoa PCra.

2 Sakatu **Contactos**-en ikonoa.

3 SIM txartelean eta telefonoan gordetako kontaktu guztiak inportatuko eta bistaratuko ditu PCak.

4 Sakatu **Archivo**, hautatu **Guardar**. Puntu horretan, kontaktuak non gorde hauta dezakezu.

**OHARRA:** SIM txartelean gordetako kontaktuen segurtasun-kopia egiteko, sakatu SIM txartelaren karpeta (PCaren pantailaren ezkerraldean dago). Egin klik kontaktuetako baten gainean eskuineko botoiarekin, eta hautatu **Seleccionar todo y Copiar edo Mover a memoria del teléfono**. Sakatu kontaktuak saguaren eskuineko botoiaz, eta hautatu **Copiar a contacto**.

Ondoren, sakatu **Teléfono** karpeta, pantailaren ezkerraldean, zenbaki guztiak agertzeko.

## Mezuak sinkronizatzea

1 Konektatu telefonoa PCra.

2 Sakatu Mensajes-en ikonoa.

3 PCko eta telefonoko mezu guztiak karpetatan bistaratuko dira pantailan.

4 Erabili pantailaren goialdeko tresna-barra, mezuak editatzeko eta berrantolatzeko.

## Musika sinkronizatzea

Menu horrekin, musika gehitu dezakezu KM900 telefonora. PCtik gailurako musika-transferentzia hasi aurretik, egin konfigurazio hau:

- Microsoft Windows XP edo Vista.

- Windows Media Player 10 edo hortik gorakoa.
- USB kablea

## Musika transferitzea Windows Media Player erabilita

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Conectividad** aukerara, Ajustes fitxan.

2 Hautatu **Modo de conexión USB** eta aukeratu **Sincronizar música**.

3 Konektatu telefonoa PCra USB kable bateragarri baten bidez.

4 Telefonoa PCra konektatzean, mezu hau agertuko da telefonoan: “Sincronizar música...”, eta, ondoren, **Conectado**.

5 PCak zeuk nahi duzun musika kudeatzeko softwarea hasteko eskatuko dizu.

6 Hautatu Windows Media Player.

7 Sartu Sincronizar fitxara, eta arrastatu eta jarri telefonora transferitu nahi duzu musika **Lista de sincronización** panelean.

8 Egin klik **Iniciar sincronización** botoian. Transferentzia-prozesua hasiko da.

**OHARRA:** Ez deskonektatu telefonoa transferentzia egiten ari dela.

**OHARRA:** Sincronizar música funtzioa musika-edukietarako soilik erabil daiteke.

## iSync erabiltzea

Instalatu Macintosh-erako eta PCrako ¡Sync osagarriaren instalazio-fitxategia eta konektatu telefonoa Bluetooth edo USB bidez.

Bluetooth bidez sinkronizatzeko, lotu Macintosha edo PCa telefonora. USB bidez konfiguratu nahi baduzu, hautatu iSync menua USB konexio-moduan.

**OHARRA:** Bluetootha erabiltzean, **iSync activado** hautatu behar duzu Opciones menuan.

## DivX bihurgailua

Instalatu DivX bihurgailua. PC Sync softwarearen CD berean ematen da. Ordenagailuko multimedia-fitxategiak telefonoarekin bateragarria den formatu batera bihurtzen ditu DivX-k, transferitu eta mugikorretik ikusi ahal izan ditzazun. Instalatu ondoren, hautatu **DivX** PCko **Archivos de programa**-n, eta, ondoren, **conversor de DivX** eta **Conversor**.

Erabili aplikazioaren geziak mugikorrera bihurtzeko formatua aldatzeko. Aplikazioaren koadroan eskuineko botoia sakatu eta **Preferencias** hautatzen baduzu, bihurtutako fitxategien helburuko kokalekua alda dezakezu.

Arrastatu eta jarri fitxategiak aplikazioan, lehen azterketa egiteko. Ondoren, hautatu **Convertir**, prozesua hasteko. Prozesua amaitu ondoren, mezu bat agertzen da, bihurketa egin dela adierazteko.

# Sarea

## Arakatzailea

Nabigatzaileari esker, zure telefono mugikorretik jokoz, musikaz, berriz, kirolez, aisialdiz eta beste hainbat gauzaz betetako mundura sar zaitezke azkar-azkar. Edonon zaudela eta edozertan ari zarela ere.

## Sarera sartzea

1. Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Navegador** aukerara, **Comunicación** fitxan.
2. Sartu zuzenean nabigatzailearen hasierako orrira, **Inicio** hautatuta. Halaber, **Introducir dirección** hauta dezakezu, eta nahi duzun URL helbidea idatzi. Ondoren, sakatu **Conectar.**

**OHARRA:** zerbitzu horretarako konexioa eta deskarga bereiz fakturatuko zaizkizu. Galdetu datuak transmititzearen gastuak zure sare-hornitzaileari.

## Gogokoak gehitzea eta haietara sartzea

Webgune gogokoetara jotzeko sarbide sinple eta bizkorra izateko, markatzaileak gehitu eta web-orriak gorde ditzakezu.

1. Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Navegador** aukerara, **Comunicación** fitxan.
2. Hautatu **Favoritos.** Gogokoen zerrenda (Favoritos) agertuko da pantailan.
3. Gogoko bat gehitzeko, hautatu , eta ukitu **Nuevo favorito**. Idatzi gogokoaren izena eta URLa.
4. Ukitu . Gogokoen zerrendan agertuko da gogokoa.
5. Gogokora sartzeko, ukitu gogokoa eta, ondoren, ukitu Conectar. Gogokora konektatuko da.

## RRS irakurgailua erabiltzea

Web-iturrien formatu-multzo bat da RSS (Really Simple Syndication), eta maiz eguneratzen diren edukiak —hala nola blogetarako sarrerak, albisteen titularrak eta podcast-ak— argitaratzeko erabiltzen da. Lotutako webgune baten edukiaren laburpena edo testu osoa izaten du RSS dokumentu batek (iturria, web-iturria edo kanala esaten zaio). RSSk bere webguneetako edukietara automatikoki sartzeko aukera ematen die erabiltzaileei, modu errazean eta haietara eskuz sartu beharrik gabe.

Erabiltzaileak, iturri batean harpidetzeko, iturriaren esteka sartu behar du irakurgailuan, edo, bestela, harpidetze-prozesua abiarazteko nabigatzailearen RSSaren ikonoa sakatu.

Aldian behin, erabiltzaileak harpidetutako iturrien eduki-eguneratzeak begiratzen eta eguneratzen ditu irakurgailuak.

## Gordetako web-orri batera sartzea

1. Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Navegador** aukerara, Comunicación fitxan.
2. Hautatu **Páginas guardadas**.
3. Hautatu ikusi nahi duzun orria, irekitzeko.

## Nabigatzailearen historia ikustea

1. Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Navegador** aukerara, Comunicación fitxan. Hautatu **Historial**.
2. Orain gutxi bisitatutako orrietara sartuko zara. Orri horietara sartzeko, hautatu besterik ez dituzu egin behar.

## Web-nabigatzailearen doikuntzak aldatzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Conectividad** aukerara, **Ajustes** fitxan.

2 Hautatu **Ajustes del navegador.**

3 Aukera hauek alda ditzakezu: **Perfil, Apariencia, Caché/Cookies, Seguridad** edo **Restablecer ajustes.**

4 Aktibatu edo desaktibatu egin ditzakezu, ikonoa ukituta.

## Telefonoa modem gisa erabiltzea

KM900 PCaren modem gisa ere erabil daiteke, posta elektronikora eta Internetera sar zaitezen kable bidezko konexiorik izan gabe ere. USB kable bidez edo Bluetooth bidez egin dezakezu konexioa.

**USB kablea erabiltzen baduzu:**

1 Egiaztatu LG PC Suite instalatuta duzula zure PCan.

2 Konektatu KM900 ordenagailura USB kableareKin, eta hasieratu LG PC Suite softwarea.

3 PCan, sakatu **Comunicación** atala. Gero, sakatu **Ajustes**, eta hautatu **Módem.**

4 Aukeratu **Módem USB móvil LG** eta hautatu OK. Pantailan agertuko da.

5 Sakatu **Conectar**, eta PCa KM900en bidez konektatuko da.

**Bluetootha erabiltzen baduzu:**

1 Egiaztatu Bluetootha **aktibatuta** eta **ikusteko** moduan dagoela, bai PCan, bai KM900en.

2 Lotu PCa eta KM900 konexioa ezartzean pasahitza eskatzeko.

3 Erabili **konexiorako laguntzailea** LG PC Suiten Bluetooth konexio aktibo bat sortzeko.

4 PCan, sakatu **Comunicación** atala. Gero, sakatu **Config**.

5 Sakatu **Módem.**

6 Hautatu **Módem estándar a través de vínculo Bluetooth**, eta sakatu **OK**. Pantailan agertuko da.

7 Sakatu **Conectar**, eta PCa KM900en bidez konektatuko da.

Karpeta horrekin, KM900 pertsonalizatzeko doikuntzak egokitu ditzakezu.

## Pantailaren doikuntzak aldatzea

1 Hasierako pantailan, hautatu  eta joan **Ajustes de la pantalla** aukerara, Ajustes fitxan.

2 Aukera-menua hauta dezakezu:

**Fondo de pantalla:** hautatu irudi bat telefonoa blokeatzeko, pizteko edo itzaltzeko eta dei bat jasotzeko.

**Reloj:** hautatu erloju-mota blokeo-pantailan.

**Fuente:** doitu letraren neurria eta estiloa.

**Luz de fondo:** atzeko argia piztuta zenbat denboran egongo den aukeratzeko.

**OHARRA:** atzeko argia zenbat eta denbora gehiagoz egon piztuta, orduan eta energia gehiago erabiliko da, eta litekeena da telefonoa maizago kargatu behar izatea.

**Brillo automático:** pantailaren distira automatikoki doitzeko.

**Brillo:** pantailaren distira doitzeko.

## Zure profilak pertsonalizatzea

Hasierako pantailan, berehala alda dezakezu zure profila. Ukitu egoeraren laburpen-barra (goialdean), eta, ondoren, ukitu Perfil fitxa.

Doikuntzen menuarekin, profil bakoitzaren konfigurazioa pertsonalizatu dezakezu.

1 Hasierako pantailan, hautatu  eta joan **Perfiles** aukerara, Ajustes fitxan.

2 Hautatu zer profil editatu nahi duzun: **Normal, Silencio, Exterior** edo **Modo vuelo**.

3 Zerrendako alerta-soinu eta aukera guztiak alda ditzakezu, baita **Tono de llamada y videollamada** eta beste doikuntza batzuk ere: **Volumen, Alertas de mensaje**, eta abar.

## Telefonoaren doikuntzak aldatzea

Gozatu KM900 telefonoa zure estilora egokitzeak ematen dizun askatasunaz.

1 Hasierako pantailan, hautatu  eta joan **Ajustes del teléfono** aukerara, Ajustes fitxan.

2 Hautatu menu bat zerrenda honetako elementuen artean:

**Fecha y Hora:** aukera ematen du data eta ordua aldatzeko edo ordua automatikoki eguneratu dadin aukeratzeko, bidaia bat egiten duzunean edo udako ordutegia aldatzen denean.

**Ahorro de energía:** aukera ematen du **Activado** modua edo **Desactivado** modua txandakatzeko energia aurrezteko doikuntzetan.

**Idiomas:** KM900en pantailako hizkuntza aldatzeko aukera ematen du.

**Bloqueo teclado automático:** aukera ematen du teklatua automatikoki blokeatzeko, hasierako pantailan dagoenean.

**Seguridad:** aukera ematen du segurtasun-doikuntzak konfiguratzeko, PIN kodeak eta telefonoaren blokeoa barne.

**Ajustes táctiles:** ukipen-teklatuaren konfigurazio-doikuntzak aldatzeko balio du.

**Memoria:** ikus **Memoria-administratzailea erabiltzea**, informazio gehiago eskuratzeko.

**Reiniciar configuración:** doikuntza guztiak aurrez ezarritako balioetan jartzeko balio du.

**Información:** KM900 modeloaren informazio teknikoa ikusteko.

## Ukitzeko doikuntzak aldatzea

Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Ajustes del teléfono** aukerara, **Ajustes** fitxan. Hautatu **Ajustes táctiles.** Ukipen-teklatua berrabiarazteko eta errazago erabiltzeko, hautatu **Calibrado del teclado táctil** eta ukitu gurutzeak. Ados zaudenean, gorde doikuntzak.

Hautatu **Efecto pantalla táctil,** ukipen-doikuntzak berrezartzeko: **Tipo, Tono** eta **Vibración.**

## Konektagarritasuneko doikuntzak aldatzea

Sare-operadoreak konfiguratuak ditu konektagarritasun-doikuntzak, zure telefono berriaz berehala goza dezazun. Erabili menu hau doikuntzak aldatzeko. Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Conectividad** aukerara, **Ajustes** fitxan.

**Configuración de red:** KM900 automatikoki konektatzen da sarerik gogokoenera.

**Perfil de Internet:** Interneteko konexio-profilak definitzeko aukera ematen du.

**Puntos de acceso:** sare-operadoreak gorde du, dagoeneko, informazio hori. Menu horrekin, sarbide-puntu berriak erantsi ditzakezu.

**Tipo de GPS: GPS asistido** edo **Independiente** hautatzeko aukera ematen du.

**GPSa**

- GPS teknologiak hainbat satelitetako informazioa erabiltzen du kokapenak aurkitzeko.
- Hargailu batek GPS sateliteetarako distantzia kalkulatzen du, seinaleek haietara iristen behar duten denboran oinarrituta, eta, ondoren, informazio hori erabiltzen du kokalekua identifikatzeko.
- Baliteke zenbait segundo edo minutu behar izatea.
- Telefono mugikor honetako GPS lagundua (A-GPS) datu-paketeen konexio bidez kokapen-laguntzako datuak berreskuratzeko erabiltzen da.
- Laguntza-datuak beharrezkoa denean soilik berreskuratzen dira zerbitzu-zerbitzaritik.

**Oharra:** GPS zerbitzuak errorea ematen du, eta ez da eskuragarri egoten eraikinen barruan, ez eta lur azpian ere.

**Modo de conexión USB:** sinkronizatu KM900 telefonoa LG PC Suite softwarearen bidez, telefonotik fitxategiak kopiatzeko.

**Salida de TV:** hautatu **PAL** edo **NTSC** KM900 telebista batera konektatzeko.

**Registro de vídeo a la carta de DivX:** menu horrekin, bideo-erregistroko kode bat sortzen da DivX.erako. Ikus http://vod. divx.com erregistratzeko eta laguntza teknikoa eskuratzeko.

**Conexión de datos empaquetados:** - Definitu datu-pake–teen konexioa.

**Ajustes del navegador:** nabigatzaileari buruzko balioak definitzen ditu.

**Ajustes de Streaming:** sare-operadoreak gorde du, dagoeneko, informazio hori. Aldaketarik egin nahi izanez gero, edita dezakezu.

**Ajustes de Java:** profilak doitzeko balio du.

## Memoria-administratzailea erabiltzea

KM900EK hiru memoria ditu: telefonoa, SIM txartela eta kanpoko memoria-txartela (memoria-txartela bereiz eskuratu beharko duzu, agian). Memoria bakoitza nola erabili eta zenbat toki dagoen erabilgarri jakiteko, memoriaren administratzailea erabil dezakezu.

Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Ajustes del teléfono** aukerara, Ajustes fitxan. Hautatu **Administrador de memoria**.

**Memoria común del teléfono:** irudiak, soinuak, bideoak, flashak, MMSak, mezu elektronikoak, Java aplikazioak eta abar gordetzeko KM900 telefonoak memorian zenbat toki duen ikusteko aukera ematen du.

**Memoria multimedia del teléfono:** multimedia-edukietarako memoria ikusteko aukera ematen du, adibidez, fitxategiak, filmak eta musika transferitzeko.

**Memoria reservada del teléfono:** ikus zure telefonoak memorian duen tokia SMSak, kontaktuak, egutegia, zeregin-zerrenda, oharrak, alarma, deien historia, gogokoenak, eta beste zenbait elementu gordetzeko.

**Memoria USIM:** USIM txartelean erabilgarri dagoen memoria ikusteko aukera ematen du.

**Kanpoko memoria:** aukera ematen du ikusteko kanpoko memoria-txartelean zenbat toki dagoen (bereiz erosi beharko duzu, agian).

## Hegazkin modua erabiltzea

Hegaldiko modua aktibatzeko, hautatu eta, ondoren, **Ajustes**. Ukitu **Perfiles**, eta hautatu **Modo de vuelo**.

Hegaldiko moduarekin, ezin da deirik egin, mezurik bidali, Internetera konektatu edo Bluetootha erabili.

## Fitxategiak bidaltzea eta jasotzea Bluetooth bidez

Bluetooth modu bikaina da fitxategiak bidali eta jasotzeko, ez baitu haririk behar; gainera, konexioa azkarra eta erraza da. Deiak egin eta jasotzeko, Bluetooth entzungailuak erabil ditzakezu.

**Fitxategi bat bidaltzeko:**

1. Ireki bidali nahi duzun fitxategia (normalean musika-, bideo- edo argazki-fitxategiak bidaliko dituzu).
2. Ukitu , eta hautatu **Enviar.** Hautatu **Bluetootha.**
3. Bluetooth dagoeneko lotua baduzu, KM900ek automatikoki beste Bluetooth batzuk bilatuko ditu. Lotua ez badago, KM900ek bere irismen-eremuko gailuak bilatuko ditu, Bluetootha aktibatua dutenak.
4. Hautatu zein gailutara bidali nahi duzun fitxategia, eta ukitu **Seleccionar**.
5. Fitxategia bidali egingo da.

**IRADOKIZUNA:** Begiratu aurrerapen-barran, fitxategia bidali dela ziurtatzeko.

**Fitxategi bat jasotzeko**

1 jasotzeko, Bluetoothak **Activado** egoeran egon behar du. Ikus **Bluetootharen doikuntzak aldatzea** (ondoren agertzen da) informazio gehiago eskuratzeko.

2 Mezu batek bidaltzailearen fitxategia onartzen duzun galdetuko dizu. Ukitu Sí, fitxategia jasotzeko.

3 Fitxategia non gorde den ikusiko duzu, eta fitxategia erabiltzeko bi aukera izango dituzu: **Ver** edo **Usar como tapiz.** Normalean, fitxategiak **Mis cosas**-en dagokion karpetan gordeko dira.

## Bluetootharen doikuntzak aldatzea

1 Hasierako pantailan, hautatu eta joan **Bluetooth** aukerara, **Ajustes** fitxan.

2 Ukitu . Aldaketak egiteko:

**Información de mi dispositivo:** jarri izen bat KM900entzat.

**Visibilidad:** zenbait aukera eskaintzen ditu: **Visible, Oculto** edo **Visible 1 min.**

**Modo SIM remota: activado:** urruneko SIM modua aktibatzeko balio du.

**iSync activado:** iSync aktibatzeko.

**Servicios admitidos:** Bluetootha hainbat zerbitzurekin batera erabiltzeko modua aukeratzen uzten du.

**Eliminar:** hautatutako profila ezabatzeko balio du.

## Telefonoa beste Bluetooth gailu bati lotzea

KM900 modeloa beste gailu bati lotuz gero, pasahitz baten bidez babestutako konexioa konfiguratu ahal izango duzu. Hala, lotura seguruagoa sortzen duzu.

1 Egiaztatu Bluetootha **Activado** egoeran dagoela.

**Ajustes** menuan, ikusgaitasuna alda dezakezu.

2 Ukitu **Buscar**.

3 KM900 telefonoak Bluetooth gailuak bilatuko ditu. Bilaketa amaituta, **Actualizar** aukera bistaratuko da pantailan.

4 Hautatu zer gailurekin lotu nahi duzun eta sartu pasahitza. Ondoren, ukitu **OK**.

5 Telefonoa beste gailuarekin lotuko da; gailu horretan pasahitz berak agertu behar du.

6 Pasahitz bidez babestutako Bluetooth konexioa prest egongo da.

## Bluetooth entzungailuak erabiltzea

1 Egiaztatu Bluetootha **Activado** egoeran dagoela.

2 Bete entzungailuekin batera zetozen jarraibideak, gailuak lotzeko.

3 Entzungailuak automatikoki entzungailuen profilera igaroko dira.

4 Ukitu **Preguntar siempre** edo **Permitir sin preguntar**.

**IRADOKIZUNA:** Ikus **Modo de respuesta BT** Bluetooth entzungailuak konektatuta daudenean deiei erantzuteko modua kontrolatu ahal izateko.

Haririk gabeko kudeatzailearekin, gailuaren Interneteko WIFi konexioak kudea ditzakezu. Telefonoari haririk gabeko sareetara konektatzeko edo Internetera haririk gabe sartzeko aukera ematen dio. WiFi haririk gabeko teknologia bat da, Bluetootha baino azkarragoa eta irismen handiagokoa.

**OHARRA:** KM900 bateragarria da WEP, WPA-PSK/2 zifratuarekin, baina ez EAP, WPS zifratuarekin. WiFi zerbitzuaren hornitzaileak edo sare-administratzaileak sareko segurtasun-arrazoiak direla eta zifratua konfiguratzen badute, adierazi gakoa leihoan. Zifratua konfiguratu ez bada, leiho hori ez da agertuko. Eskatu gakoa WiFi zerbitzu-hornitzaileari edo sare-administratzaileari.

## 1. Nola konfiguratu WiFia

**1** WiFia aktibatu

**2** APa bilatu (sarbide-puntua).

- Bilatu konektatzeko AP bat.

**3** Konektatu APa.

- APen bilaketa-zerrendako dagokion APra konektatzen du.
.- APren segurtasun-modua WEP edo WPA-PSK/2 bada, adierazi segurtasun-gakoa.

## 2. WiFi sare-profilerako laguntza teknikoa

**1** WiFi profilerako laguntza teknikoa (nola konektatu ohiko erabilerako AP batera edo AP ezkutu batera).

1) APa bilaketa-zerrendan agertzen ez bada, profil gisa gordeta konekta dezakezu.

2) Erabilera askoko APren profila gordeta, erosoago sar zaitezke segurtasun-gakoarekin, AP batera segurtasun-mota horrekin konektatu behar duzunean.

3) APa DHCPrekin bateragarria ez bada, konektatu APra IP helbide estatiko baten bidez.

**2** WiFi profilaren eremu bakoitza deskribatu.

1) Sarearen izena: SSID (ID)

2) Segurtasun-mota: bateragarria WEP,WPA-PSK/2rekin.

3) Segurtasun-gakoa: segurtasun-gakoa gordetzen du.

4) IP/DNS doitzea: Automático edo Estático gisa definitzeko aukera ematen du, APa DHCPrekin bateragarria den ala ez kontuan izanik.

Balio estatikorako, sartu IParen helbidearen balioa, eta konektatzean IP helbide estatikoarekin erabiliko den DNS zerbitzariarena.

**3** Nola gorde WiFi profila.

1) Hautatu Redes guardadas Opciones menuan, eta hautatu Nueva red eta adierazi balioak eremu bakoitzean.

2) AP bilaketa-zerenda hautatu eta gorde daiteke, Wi-Fi activada eta Actualizar hautatuta (Buscando AP).

3) AP bat segurtasun-mota horrekin konektatu ondoren, profila automatikoki gordeko da.

# Softwarea eguneratzea

## Softwarea eguneratzea

**LG telefono mugikorren softwarea eguneratzeko programa**

Programa hori instalatzeari eta erabiltzeari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, ikus http:// update. lgmobile.com..

Funtzio horrekin, softwarea azken bertsioarekin eguneratu dezakezu, modu erraz eta praktikoan, Internet bidez, bezeroaren arretarako zerbitzura joan beharrik gabe.

Jarri arreta telefono mugikorraren softwarearen eguneratze-programari, eta egiaztatu jarraibide eta ohar guztiak hurrengo pausora joan aurretik. Eguneratzean datuak transferitzeko USB kablea edo bateria ateratzen baduzu, telefono mugikorrari kalte egin diezaiokezu. Fabrikatzaileak ez du hartzen eguneratze-prozesuan galdutako datuen ardurarik; beraz, zure segurtasunerako, aurrez informazio garrantzitsuaren kopia bat egitea gomendatzen da.





# Osagarriak

Hainbat osagarri dituzu telefono mugikorrerako; bereizita saltzen dira. Zure komunikazio-behar pertsonalen arabera hauta ditzakezu. Galdetu erabiltzeko modua hornitzaileari. (Hemen deskribatzen diren elementuak hautazkoak izan daitezke).

**Kargagailua**



**Bateria**



**Entzungailu estereofonikoak**



**Datu-kablea eta CDa**
KM900 eta PCa konektatzeko eta sinkronizatzeko.



**Erabiltzailearen eskuliburua**
KM900i buruzko informazio gehigarria.




**OHARRA:**

- Erabili beti LGren jatorrizko osagarriak.
- Hori egiten ez baduzu, bermea bertan behera gera daiteke.
- Osagarriak desberdinak izan daitezke lurraldearen arabera.

# Sare-zerbitzuak

Eskuliburu honetan deskribatzen den haririk gabeko telefonoa sare hauetan erabil daiteke: GSM 900, DCS 1800, GSM 850, PCS1900 eta W-CDMA.

Eskuliburu honetan sartu diren zenbait funtziori sare-zerbitzu deitzen zaie. Haririk gabeko zerbitzuen hornitzailearekin hitzartu daitezkeen zerbitzu bereziak dira. Sare-zerbitzu horietako edozein erabili ahal izateko, izena eman beharko duzu, eta erabiltzeko jarraibideak jaso, zure zerbitzu-hornitzailearen bidez.

## DivXen nahierako bideo-erregistroa:

DivXen nahierako bideoko erregistro-kodea sortzea. Ikus http://vod.divx.com erregistratzeko eta laguntza teknikoa eskuratzeko.

# Datu teknikoak

**Orokorra**

Produtuaren izena: KM900 Sistema: GSM 900 / DCS 1800 / GSM 850/ PCS1900/WCDMA

**Giro-tenperaturak**

Max.: +55 °C (deskargatzen)

+45 °C (kargatzen)

Mín.: -10 °C

# Adostasun-deklarazioa

LG Electronics

**Detalles del fabricante**

**Izena**

LG Electronics Inc

**Izena**

LG Electronics Inc. LG Twin Towers 20,
Yeouido-dong, Yeongdeungpo-gu, Seoul, Korea 150-721

**Produktuari buruzko xehetasunak**

**Produktuaren izena**

E-GSM 900 / DCS 1800 / GSM 850 / PCS 1900 Quad Band and WCDMA Terminal Equipment

**Modeloa**

KM900

Empresa

LG

CE 0168 ⓘ

**Aplika daitezkeen estandarrak**

R&TTE Directive 1999/5/EC

EN 301 489-1 V1.6.1 / EN 301 489-7 V1.3.1 / EN 301 489-9 V1.3.1 / EN 301 489-17 V1.2.1 /
EN 301 489-19 V1.2.1 / EN 301 489-24 V1.3.1
EN 60950-1: 2001
EN 50360 / EN 50361: 2001
EN 301 511 V9.0.2 / EN 301 908-1 V3.2.1 / EN 301 908-2 V3.2.1
EN 300 328 V1.7.1
EN 301 357-1 V1.4.1

**Informazio gehiago**

Onarpen-erakunde honek egiaztatu du arestian aipatutako estandarrak betetzen dituela:
BABT, Balfbur House, Churchfield Road, Walton-on-Thames, Suney, KT12 2TD, United Kingdom
Notlfled Body Identification Number: 0168

**Deklarazioa**

Gure ardurapean, zin egiten dut deklarazio honen xede den produktuak arestian aipatutako estandar eta direktiba guztiak betetzen dituela.

| Nombre | Fecha |
|---|---|
| Seung Hyoun, Ji / Director | 8, January, 2009 |

European Standard Center
LG Electronics Logistics and Services B.V.
Veluwezoom 15, 1327 AE Almere, The Netherlands
Tel : +31 - 36- 547 - 8940, Fax : +31 - 36 - 547 - 8794
e-mail : jacob @ lge.com

Firma del representante

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

Irakurri jarraibide erraz hauek. Ez ezagutzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke.

## Irrati-maiztasuneko energiarekiko esposizioa

Irrati-uhinen eraginpean egotea eta SAR (Specific Absorption Rate, absortzio espezifikoaren tasa). KM900 telefono mugikorra irrati-uhinen eraginpean egoteari buruzko segurtasun-araudia betetzeko moduan diseinatu da. Arau horiek pertsona ororen –adina eta osasun-egoera gorabehera– segurtasuna bermatzeko diseinatutako segurtasun-tarteak dituzten jarraibide zientifikoetan oinarritzen dira.

- Irrati-uhinekiko esposizioaren jarraibideen neurketa-unitatea absortzio espezifikoaren tasa edo SAR da. Telefonoan erabiltzen diren frekuentzia-banda guztietan ziurtatutako potentzia-maila altuenean transmititzen ari dela egiten zaizkio SARen probak, metodo estandarra erabiliz.
- LG telefono-modelo batetik bestera SAR mailan aldea izan badaiteke ere, telefono guztiak irrati-uhinekiko esposizioari dagozkion zuzentarau garrantzitsuetara egokitzeko diseinatu dira.
- ICNIRP (International Commission on Non-Ionizing Radiation Protection) Erradiazio ez-ionizatzaileetatik Babesteko Nazioarteko Batzordeak gomendatzen du SAR balio-muga hau izatea: 2 W/kg, ehunaren hamar (10) gramoko.
- Telefono-modelo hau belarrian erabiltzeko erregistratu den SAR mailarik altuena 0,602 W/kg (10 g) da, eta gorputzaren kontra garraiatzeko baliorik altuena, berriz, 0,646 W/kg (10 g).
- IEEE (Institute of Electrical and Electronics Engineers) Ingeniari Elektrikoen eta Elektronikoen Institutuak gomendatutako SAR muga-balioak oinarri hartu dituzten herrialdeetan/eskualdeetan bizi direnentzako SAR datuei buruzko informazioa: 1,18 W/kg ehun gramo bakoitzeko (1).

## Produktua zaintzea eta mantentze-lanak

⚠ **OHARRA** Telefono-modelo honetan erabiltzeko onartu diren bateriak, kargagailuak eta osagarriak erabili bakarrik. Bestela, telefonoari dagozkion onarpen edo bermeak baliorik gabe gera daitezke, eta hori arriskutsua izan daiteke.

- Ez desmuntatu gailua. Konpondu behar bada, eraman gaitutako zerbitzu tekniko batera.
- Ekipoa tresna elektrikoetatik (telebista, irratia edota ordenagailu pertsonala) urrun eduki.
- Ez utzi ekipoa leku beroetan (erradiadore edo labeen ondoan).
- Ez dadila eror.
- Ez utzi telefonoa bibrazio mekanikoen mende.
- Ez kolpatu.
- Desaktibatu telefonoa araudi bereziek hala eskatzen duten lekuetan. Ez erabili telefonoa ospitaleetan, adibidez, tresna mediko sentikorrei eragin baitiezaieke.
- Telefonoa kargatzen ari denean, ez ukitu telefonoa eskuak bustiak badituzu. Deskarga elektrikoa eragin edo telefonoa honda dezakezu.

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

- Ez kargatu telefonoa material sukoia hurbil badago; berotu egin daiteke, eta sute bat eragin dezake.
- Garbitu telefonoaren kanpoaldea zapi lehor batekin (ez erabili bentzenorik, disolbatzailerik, alkoholik eta antzeko solbenterik).
- Ez kargatu telefonoa gainazal barrubigunen gainean.
- Behar bezala aireztatutako eremuetan kargatu behar da telefonoa.
- Ez utzi telefonoa ke edo hauts asko dagoen tokietan.
- Urrundu telefonoa kreditu-txarteletatik edo garraio-txarteletatik, horien banda magnetikoaren informazioa honda baitezake.
- Ez kolpatu pantaila objektu puntadunekin, telefonoa honda daiteke.
- Ez busti telefonoa eta ez utzi toki hezeetan.
- Osagarriak kontuz erabili (entzungailuak, adibidez). Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.

## Telefonoaren funtzionamendu eraginkorra

### Gailu elektronikoak

Telefono mugikor guztiek sor ditzakete beste gailu batzuen errendimenduari eragin diezaieketen interferentziak.

- Ez erabili telefonoa ekipo medikoetatik gertu, baimenik eskatu gabe. Ez ipini telefonoa taupada-markagailuaren gainean, alegia, ez ipini alkandoraren poltsikoan, adibidez.
- Telefono mugikorrek zenbait audiofono honda ditzakete.
- Telebista, irrati, ordenagailu eta abarretan ere interferentzia txikiak eragin ditzakete.

## Bide-segurtasuna

Gidatu bitartean telefono mugikorrak erabiltzeari buruzko legeei eta tokiko arauei kasu egin.

- Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zarenean.
- Gidatu arreta osoz.
- Erabili esku libreko gailu bat, baldin baduzu.
- Deiak egin edo deiei erantzun baino lehen, errepidetik irten eta aparkatu, errepidearen kondizioen arabera.
- Irrati-maiztasunak ibilgailuaren sistema elektroniko batzuetan eragin dezake (autoaren irratiak edo segurtasun-ekipoak).
- Ibilgailuak airbag-a badu, ez oztoporik jarri haririk gabeko ekipo eramangarriekin edo finkoekin. Horien ondorioz, airbag-ak huts egin dezake, eta larri zauritu zaitezke.
- Kalean zaudela musika entzuten baduzu, ziurtatu bolumenaren intentsitatea arrazoizkoa dela, zure inguruan gertatzen denaz jabetu zaitezen. Oso garrantzitsua da, batik bat, zirkulazio-bideetatik hurbil.

## Saihestu belarrietako lesioak

Bolumen altuko soinuak entzuten denbora askoz egonez gero, baliteke zure belarriek kalteak jasatea. Horregatik, telefonoa belarrietatik hurbil ez piztea eta itzaltzea gomendatzen dizugu. Horrez gain, musikaren eta deien bolumena arrazoizko mailan ezartzea gomendatzen dizugu.

## Beirazko piezak

Zure telefono mugikorraren pieza batzuk beirazkoak dira. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handia hartzen badu.

# Segurtasunez eta eraginkortasunez erabiltzeko jarraibideak

Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili zure telefonoa hornitzaile baimendu batek kristala ordeztu arte.

## Lehergaiak

Ez erabili telefonoa lehergaiekin lanean ari diren tokietan. Errespetatu murrizketak eta jarraitu arauei.

## Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

- Ez erabili telefonoa gasolina-zerbitzuguneetan.
- Ez erabili produktu kimiko edo erregaietatik hurbil.
- Ez garraiatu edo ez gorde lehergai, likido edo gas sukoirik telefono mugikorra eta haren osagarriak dauden ibilgailuko konpartimentuan.

## Hegazkinetan

Haririk gabeko gailuek interferentziak sor ditzakete hegazkinetan.

- Itzali telefono mugikorra hegazkinean sartu aurretik.
- Ez erabili lurrean tripulazioaren baimenik gabe.

## Haurrak

Ez utzi telefonoa haur txikien eskueran. Toki seguruetan gorde. Pieza txikiak ditu, eta, irensten badituzte, itotzeko arriskua dute.

## Larrialdi-deiak

Beharbada larrialdi-deiak ezingo dira sare mugikor guztietan erabili. Beraz, ezin duzu telefonoaren mende bakarrik egon larrialdietako deiak egiteko. Zure inguruko zerbitzuen hornitzaileari galdetu.

## Bateriari buruzko informazioa eta mantentze-lanak

- Bateriak ez du zertan erabat deskargatuta egon berriz kargatzeko. Beste baterietan ez bezala, ez dago bateriaren errendimenduari kalte egin diezaiokeen memoria-efekturik.
- LGren bateriak eta kargagailuak bakarrik erabili. LGren kargagailuak bateriaren bizitza ahalik eta gehiena luzatzeko diseinatu dira.
- Ez desmuntatu bateria eta ez egin zirkuitulaburrik.
- Garbi eduki bateriaren kontaktu metalikoak.
- Aldatu bateria, behar bezala ez dabilenean.
- Bateria ehunka aldiz karga daiteke, hondatu arte.
- Aspaldian erabili ez baduzu, bateria kargatu egin behar duzu, funtzionaltasuna ahalik eta handiena izan dadin.
- Ez jarri bateria-kargagailua eguzkitan, eta ez erabili ingurune hezeetan (komunean, adibidez).
- Ez utzi bateria toki hotz edo beroetan, errendimendua txikitu daiteke.
- Bateria desegoki batekin ordeztuz gero, lehertzeko arriskua dago.
- Bete fabrikatzailearen jarraibideak bateriak ezabatzeko garaian. Ahal bada, birziklatu. Ez bota bateriak etxeko zakarrontzira.
- Bateria ordeztu behar baduzu, eraman hornitzailearengana edo hurbilen duzun LG Electronics-en zerbitzu-puntu baimendura, laguntza jasotzeko.
- Desentxufatu beti kargagailua korronte-hartunetik telefonoa kargatu ondoren, kargagailuak energia alferrik kontsumi ez dezan.

# Arazoak konpontzea

Kapitulu honetan, telefonoa erabiltzean sor daitezkeen zenbait arazo deskribatzen dira. Arazo batzuek konpontzeko, zerbitzu-hornitzailearengana jo beharko duzu, baina gehienak zuk zeuk konpon ditzakezu.

| Mezua | Zergatia | Konponbideak |
|---|---|---|
| Errorea SIM txartelean | SIM txartela ez da telefonoan sartu, edo ez dago ondo sartuta. | Egiazta ezazu SIM txartela behar bezala sartuta dagoen. |
| Ez da sare-estaldurarik | Seinale ahula<br>GSM sarearen eremutik kanpo zaude. | Joan leiho batera edo eremu ireki batera. Egiaztatu zerbitzu-hornitzailearen estaldura. |
| Kodeak ez datoz bat | Segurtasun-kode bat aldatzeko, kode berria berretsi behar duzu, berriro sartuta. | Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. |
| Ezin da funtzioa konfiguratu | Zerbitzu-hornitzaileak ez du onartzen, edo erregistratu egin behar da | Jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin. |
| Ezin da deirik egin | Gaizki markatu duzu<br>SIM txartel berria / Gastu-mugara iritsi zara | Sare berria ez dago baimenduta. Egiaztatu muga berriak.<br>Jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin, edo ezarri berriro muga PIN 2 kodea erabilita. |
| Ezin da telefonoa piztu. | Ez duzu pizteko/itzaltzeko tekla behar beste denboran sakatu<br>Bateria agortua<br>Bateriaren kontaktuak zikinak daude. | Sakatu aktibatzeko eta desaktibatzeko tekla bi segundoz, gutxienez.<br>Kargatu bateria.<br>Garbitu kontaktuak. |

| Mezua | Zergatia | Konponbideak |
|---|---|---|
| Karga-akatsa | Bateria hustuta dago.<br>Tenperatura onartutako tartetik kanpokoa da. | Kargatu bateria.<br>Egiaztatu tenperatura egokia dela, itxaron pixka bat, eta gero, kargatu berriro. |
| | Kontaktu-arazoak | Egiaztatu elikatze-iturria eta telefonoaren konexioa. Egiaztatu bateriaren kontaktuak eta garbitu, beharrezkoa bada. |
| | Elikatze elektrikorik ez | Sartu beste entxufe batean, edo egiaztatu hornidura elektrikorik dagoen. |
| | Kargagailu akastuna | Kargagailua berotzen ez bada, ordeztu. |
| | Okerreko kargagailua | LGren jatorrizko osagarriak soilik erabili. |
| | Bateria akastuna | Aldatu bateria. |
| Telefonoak sarea galtzen du | Seinalea ahulegia da | Automatikoki konektatzen da beste zerbitzu-hornitzaile batera. |
| Baimenik gabeko zenbakia | Markaketa finkoko funtzioa aktibatuta dago. | Egiaztatu doikuntzak. |

euskaltel

2008ko Kudeaketaren Kalitatearen Urrezko Q saria

Q Oro Premio a la Calidad de Gestión 2008